

ANUARIO DE EUSKO-FOLKLORE  
Sociedad de Ciencias ARANZADI  
SAN SEBASTIAN

Tomo XXV. — 1973-1974. — Págs. 277-370

# Orexa erria Etnologia aldetik

ETNIKER ikaslanak Gipuzkoan

LATXAGA

ESKEINTZA:

*Dolores Errondosoro, andre ziñezkoari,  
nere etxean, «Ama Dolores» ezagutzen  
genuen emakume euskaldun egitazkoari,  
lau au, biotzez eta eskertsu, opa diot.*

## LUTELESTIA

1/1. — Oreja izenarekin ezagutzen dute gaur erri au ta geienetan ala deitzen dute.

Orexa izenarekin agertzen da paper zar geienetan. Gaur askok oraindik ala esaten eta idazten dute.

Orixex izena ere ba du. Oso galdua dago baiñan noizbeinka entzuten da. Gaztelu'ko aiton batek ala esan zidan bein: «Orixex'ko errota ondotik etorri al zera?»

Bertako seme guztiz ospetsua dan, Nikolas Ormaetxea idazle ezin obeak, ortik artu zuan bere ezizena ain ezaguna, «Orixex». Uizi'tik urtean bein Orexa'ra bere gurasoak ikustera etortzen zanean, erri ontako azkeneko baserrian bizi zan aitonak esaten omen zion: «Nikolas, Orixera al zoaz?» Ortik artu zuan gure idazleak bere izen ordea.

2/1. — Dirección General del Instituto Geográfico y Castatral'ek, Tolosa'ri buruz egiña daukan mapan, 89 zenbakian, 1953 urteko

bigarren argitaraldian, Orexa erria, 1° 40' 40" luzean eta 43° 06' 20" zear datza ludian.

421 metro Alikante'ko neurritik goien dago Errikoetxea.

Gipuzkoa'tik Naparroa'ra Azpiroz barrena dijoan errege bide nagusitik 4.400 metro daude.

Erria aldapan dago, eguteraan, mendiak ipar aldetik babesten dula; Aralar'ko Malloak aurrez aurre dauzka. Beko aldean berriz, kilometro batera erreka, Orexaran izenekoa. Errekatik aruntz egoaldera, Narbaitzu mendia; Narbaitzu'n atzeko aidian AÑE mendia ta len aipatu degun bezela, danetan atzena ARA-LAR.

2/2. — Orexa'k, Gipuzkoa'n, Berastegi, Gaztelu ta Lizarza'kin ditu mugak; Naparroa'n berriz, Areso ta Atallo. Orexa'k lur guztiak batean ditu, baiñan Naparroa'ko muga ondoan, Gaztelu ta Lizarza'ko ugarte edo enklabe batzuek daude.

Legasa'ko Migel Atxega'k, zarren aldetik entzun omen zuan, bakarka dauden beste erriko lur sail oiek, «alkarren azindak zaintzeko egin zituztela. Batek bestearen beldurra eukitzegatik».

2/3. — (Legasa'ko Migel Atxega)

«Orexa'k ba ditu urmugarriak. Muga oietatik eun metrora, beste erriko ardiak, aretzaz aurrera, larratzera etzitekean joan».

3/1. — Orexa erriak, danetara dauzkan lurretan, 581 hektarea, 87 area ta 50 zentiaera ditu.

Agertzen ditugun neurriak, 1956 garren urtekoak dira. Gipuzkoa'ko Diputazio'tik artuak daude.

Era ontara banatuak artu dituzte:

Baratzak, etxe ondoan puska txiki bana.

Cereal: 19/18/25. — P. Manzanal 24/70. — Prado 37/53/95. — A. Frondosas 1/14/40. — Pinar (izotzak 1956 garren urtean danak il zituan). — Monte Bajo 253/96/81. — Pastizal 92/72/43. — E. A. pastos 49/47/86.

A. Ribera ezerrez. Diputazioan. Baiñan ba daude bizpairu hektarea.

Mimbrea ezerez.

Roble Amerikano, ezerez Diputazioan, baiñan ba daude baso txiki batzuetan, gaiñera eder xamarrak.

Soroetan, danetan landua agertzen dana: 454/28/40 Hek.

Errikoetxeak ditun lurak: 138/10/45 Hek.

Dana dala, Poligono bat dago, 482 zati aundi ta 2.767 zati txiki.

3/2. — Orexa'ko lurretan agertzen diran izen danak artu ditut.

Sortaidetik asita sartalderaiño dijoaz. Zuzenbideak taldeka idatzia dira. Lutelestiari begiratuaz danak errenkan ipiñiak daude.

#### Orexaran IBAIAREN GOIKO-ALDETIK ARTUTA IPAR ALDERA

Orexaran ibaia.

Atxulegi'ko gaztañak.

Muñotxo, landare gazteak gaiñean.

Bordazar, gaiñean.

Sukundi erreka.

Abate, Sukundi errekatik ezkerretara.

Orunbe.

Orunbe'ko bordak.

Kartola aitzak.

Baltzarren, Matxiñeko garrotokia.

Baltzarren'go erreka. Ortik Uli'ko iturriaren erreka dijoaz.

Luzmuño. Piñudi azpikoari ta Orunbe'ko gaiñeko tokiari.

#### BERRIZ ERREKATIK GORA ASITA

Irari. Orain piñuak ta pagoak.

Irari'ko Artegia. Artea erriarena.

Luzkumuño'ko Aitzondoa. Erriko errege-bidea egiteko emendik atera zan aitzia.

Lastarbide Erreka. Akullutegi'tik barrena datorrena.

Luskosare iturria. Emendik du asiera Lastarbide erreka.

Uzkalar. Garo leku sail aundiari.

Akullutegi baserria ta borda Ormaetxekoa.

Txanbulutegi ta Kixugi edo Kixoi. Bi muño Lastarbide errekatik ezkerretara.

Arantzalde. Muño oieta-tik ezkerretara bi belaze ta piñudiak.

Andresoro. Arantzalde pare ori, bera, erri aldera.

Kortaza. Arantzalde pare ori, gora, erri aldera.

Prailabake edo Prailaki. Bentaberri gaiñeko egia.

Urbañu'ko kaskoa.

Urbañuegi, gorago. Pagoak erriarenak.

Urbañu. Barruti ori dana.

Iriarte'ko Arrobia. Piñudi baten ezkerrean.

Mutegixar. Piñudi tarteari.

Barrutia. Belaze bat gaiñean Konsejukoa.

Zolitzarren. Uli'tik dijoan goiko bide ta zelaiari.

## ERREKATIK GORA, BERRIZ ERRI ALDERA

*Arane.* Erreka ondoan zelaia.  
*Basabe.* Arane'n ezkerretara basoa, erri azpian.  
*Birabe* etxea gorago.  
*Biartetxe,* eskubira.  
*Arantzalde.* Bentaberri'tik Akullutegi bitartean.  
*Kortatza.* Goiko orren ondoan.  
*Muskille.* Belazeak, len soroak.  
*Mutriku.* Piñudia.  
*Luberri.*  
*Lastai.* Piñudiak.  
*Beorte.*  
*Somear.* Piñudiak.  
*Azpindegi.*  
*Arnobieta.* Belazeak, iturria.  
*Tellerizar.* Goiko orren ondoan, azpiko aldean.  
*Gorostieta.* Piñudia Gogorzanekoa.  
*Ipintza erreka.*  
*Olaiturri.* Legasa ondoan.  
*Balitegi.* Biartetxe etxe azpia.  
*Aldatseta.*  
*Abiturri.*  
*Malkatxe.* Malkorra'tik aurreraxeago.  
*Mataurre.* Elbarren'dik Biddarte'ko bidean dagon errekarri.  
*Ormaberri.* Malkorra'ko bide azpiari.  
*Artetxealde.* Ormaetxegaraiko borda tokia.

*Mandaerreka.* Malkorra'tik berako erreka.  
*Sorotxiki.* Malkorra azpian.  
*Osean.* Ezkerreta.  
*Intxaurtegi.* Sorotxiki gainean.  
*Iarza.* Basoan.  
*Bentaberri'ko iturria.*  
*Azpindegi.* Larte'ko aritz eder oiek dauden tokiari.  
*Aizkorrieta.* Elizaren piñu-tokiari.  
*Anakar.* Mendi gain orreri.  
*Urtea.* Abiturri'ko gainean.  
*Erleta.* Kanposantu'tik eskubira.  
*Errotatze edo Errebotatze.*  
*Espuru.* Erri gainiari.  
*Muskerra.* Espuru atzeko sakonari.  
*Arrigi.* Ipar aldera urrengo tontorra ta zelaiari.  
*Pagomutegi.*  
*Juaniturri.* Pagomutegi ondoan.  
*Malkorpe.* Legasa base-rriaren gainean.  
*Erlaki.* Legasa azpiko soroa.  
*Bordatxiki.* Garai batsan serora bizitutakoa.  
*Sorozoko.* Erregebide atzean dagon lekuari, Txuñekoa.  
*Gaingorotzako Etxaburu.*  
*Gaingorotzasoro.*  
*Sororreta.* Erri-azpiko soroak.

*Mateak.*  
*Baratzazar.*  
*Sagastibazterra,* Iribarren'goa.  
*Erleta.*  
*Iturralde.* Belazeak.  
*Aulei.* Errege-bide gainean.  
*Urzuku'ko egik.*  
*Iturtune.* Iriarte etxetik Belazeiturri bitartean.  
*Sagartxikita.* Gorotzune ondoan.  
*Gorotzune.* Bigarren erre-buelta.  
*Saltxo.* Aurreraxeago.  
*Arbide.* Goraxeago.  
*Errotane erreka.*  
*Errotane etxea.*  
*Orexa'ko erreka.*  
*Etxeazpi.* Mikelene etxe azpiari.  
*Soroandi.* Mikelen'go atadiakoa.  
*Burkaitze.* Soroandiko gaineko aldean.  
*Belaizturri.* Larte etxe-ko azpiko aldeari.  
*Biribila.* Askaren bean.  
*Lizilurre.* Beraxeago.  
*Etxeburu.* Larte'ko gaineko aldean.

## URKIETA'KO MAGALEAN OSPEL ALDERA

*Murkaitze.* Larte'tik Mikelene bitartean.  
*Ormaza.* Ormaetxegaraiko azpikoari.  
*Urrutxu.* Etxegarai azpian.  
*Iturburu.* Mikelengo gaineko iturria.  
*Itxipita.* Espuru'ko egala ezkerreta.  
*Gaztañaga.* Auzkoaldian.  
*Arrizuri.* Gorago.  
*Oianzuri.*  
*Oiantxiki.* Lizarza'kin mugatzen dana.  
*Olaozpegi.* Alziturrieta'ko atzeari.  
*Belaku.* Erriko ura artzen dan tokiari.  
*Muserreka.* Orexa'ko uraren iturria.  
*Ermitegi.* San Markos azpiari.  
*Osiñeta.*  
*Osiñeta aska.*  
*Sagastizar.* Oloztegi'tik aurtaxeago.  
*Oloztegi.* Belazea.  
*Arbide.* Belazeak, Lizarza'kin mugatzen diranak, Sarriegi etxetik auntza.  
*Sarriegi'ko iturria.*

*Kobaundi.*  
*Aitzxiki.*  
*Kobatxiki.*  
*Kazkardi.* Azpian.  
*Aitxiki bazterra.*  
*Aitxiki'ko iturria.*  
*Zalozbide.*

*Basoaurdi.* Norteko aritza ta pagoa.

*Zapelen ta Zapalengo iturrie.*

*Oldegi.* Bidea dagoen alderdiari.

*Errekabitate.* Zubira dijoan erreka.

#### URKIETA'KO MAGALA EGUTERA ALDERA

*Ustaluz.* Urkieta'ko sakonean utsik.

*Arrumeondoko piñudia.* Illarratsu gaiñean.

*Ziaria.*

*Malkotxe.* Gaiñ bat, pago batzuek ta arkaitza.

*Baltxantxiki.* Ziari gaiñean erriaren pagadia.

*Baltzan baztarra.* Erreka aldera.

#### 3/3. — GIROA NOLAKOA DAN

*Neguan:* euri asko, bizpairu aldiz elurra, aize zakarra Azarota Otsaillan (egoa), otza aundirik ez, izotza bizpairu aldiz.

*Udaberrian:* euri asko, ezetasuna, egun batzuek oso onak.

*Uda:* beroak, ekaitzak, terrala noizbeinka, arria gutxitan.

*Udazkena:* oso ona geienetan, eguraldi garbia, margo biziak.

Bata besteakin ez otza aundiak, ezta ere berotasun ikaragarria, ezetasuna bai ta aize aundiak bizpairu aldiz urtean.

Giroari buruz, errian askotan erabiltzen dituzten itzak:

«Gaur izango da ateria».

«Alde aldeko giroa».

*Aizeen izenak:* Beko aizea, Egoa, Ekaitza aizea, Goierrea (Udako aize bat, lañoPETIK bero zakar bat).

*Elurraren izenak:* antziorra, elurra larratu (urtu bezela), malota lapatxa.

*Lañoaren izenak:* Terrala, Kandue, Zardaie (trumoi lañoa), Zibela (laño beltz beltza).

*Euriaren izenak:* Ebilangarra, Lurriña.

*Iturritxiki.* Udar agortzen da. Lizarza'k muga egiten du.

*Txarakai.* Aitzondo gaiñari.

*Ariztitxulo.* Atzean dagon sakonari.

*Aitzulupeta, Aitzlupeta.* Aitxiki gaiñari.

*Iraindoki erreka.*

*Putxutxulo.* Iraindoki erreka dijoa.

*Donauiturri.* Iraindoki erreka dijoa. Gaingorotza'ko lurretan dago.

*Baltzan.* Bean, basoa.

*Aitzulupe.*

*Narbaitsu.* Gain guztiari.

*Izotzarenak:* Lantzurre (izotza mendi tontorrean), Burruntziak. *Etxe ondoko euri tantoari:* Ituzure, Ixtille, Itukiñe.

#### 4/1. — LUDIZTIA EDO GEOLOGIA

«Mapa de Guipúzcoa del Instituto Geológico y minero de España». Madrid 1971; liburutik artua.

*Lurra ze eratakoea dan:*

Caliza recital Masive (G 3-4)

Albeldense superior-Cenomanense inferior  
Cretácico  
Mesozoico

Argilita Calcárea Masiva

Aptense Albeldense inferior  
Cretácico  
Mesozoico

Caliza Organodéitica bien estratificada

Aptense Albense inferior  
Cretácico  
Mesozoico

Dolomias Calizas Dolomíticos y Calizas

Infralías-Lias medio  
Jurásico  
Mesozoico

Arcillas Isiradas (T/K)

Kenper  
Triásico  
Mesozoico

Alternación de calizas a cabezas areniscas anizagas arenosas de color rojo vinoso

Maestrichtiense-Dones  
Cretácico  
Mesozoico

#### 4/2. — Lurgaiaren izenak, Orexa'n, Legasa'ko Migel'ek esan zizkidan bezela:

Tupe=arri beratza

Arrixea, Kazkardi izeneko tokian asko dagona.

Karearrie

Lapitze, ormak egiteko.

Karoliñe=Gaindirotza etxea onekin egiña dago.

Bustiñe=Garai batean bi telleri zeuden, Orexa'n.

Soro lurra.

Ondarra ibaian.

## 4/3. — KOBAK

Bi daude: Koba aundi ta Koba txiki.

a) *Koba aundi:*

Sarrera ospela aldetik, Aitzaundi'n, Orexaran aldera. Bide txarra dago; ikaragarritzko malkor gañetik dijoa.

Kobaren aoak zabalean 6 mtr. dauzka.

» » luzean 6 terdi

» » gora 3 terdi


Barrenera sartzeko 4 metro luzeko zuloa du ta gora metro erdia, zabalean 0,80.

Sarreraren ezkerretara, gora beste igarotegi bat, estua ta malladin antzera agertzen dana.


Koba barreanean, sartuta ezkerretara, metro terdiko estalaktita aundi bat ta arri eroriak. Aurrean aldapa. Gaiñeko al-dian putzua ta aren ondotik goruntz tximini antzeko zulo luze bat.

Arri erorien ondotik eskubira, bidea; jexiten da pixko bat, malladi baten antzeko arria arkitzen da. Estutasuna lasaitzen da. Beste lepo bat ondotik ta gela baten antzeko to-kia berriz zabalagoa ta gaiñeko al-dian bi metro terdira es-talaktitaz beterik beste gela bat.


*Barrengo gela aundia orrela agertzen da:*



*Bigarren gelatxoa:* gela oneri, su-gela eman diogu izena. Bi aldetara bi metroko arkaitzak ditu. Jaixterakoan malladiaren antzeko arria goxatu xamarra dagola dirudi.

*Irugarren gela:*

Koba aunditik auntxaxeago, ezkerreko aldetik, pixka bat jetxi bear da ta laster bide estu bat artu, pixko bat igo ta metro erdiko zuloa ikusten da. Barreanean bidea beruntz, aldapatsu dijoa. Estalaktitaz betea dago. Batzuek lur-rean puskatuak zeuden.

b) *Koba txikia:*

Aitzixiki arkaitzapean datza, ospelean. Bide txarra dago bertaraiño igotzeko. Arkaitzean bizpauru metroko babesa da. Besterik ez.

## 5/ 1. — LANDAREAK

Lendabizi nolako zugaitzak dauden ikusiko dugu:

*Aitze, Araitze:* Azpindegi izeneko tokian daude gaur ederrenak. Ogei gutxinaz ogeitamar metrokoak luzean. Len ere emendik bertatik, asko eramán zituzten Pasai'ra itxas-ontzien makillearako.

Azkenekoak orain dala amar urte, garbiturik, 21 metro eman zitun.

*Aiña:* Egur gogorra. Onen ostoa jan ezker abereak il egiten dira. Azkena Gotzaia errira etorritakoan, enparantzara apaintzeko joan ziran ainiaren billa ta Ormaetxegaraiako mandoa il zan.

*Alertzea.*

*Alkazia.*

*Ametza:* Sakatxagoa da. Ezkurra emateko bera obena. Akullutegi bitarte ortan dago.

*Artea:* Alde aldekoa izan ezker, materialetako balio du. Bere igalia makatza. Pixtik mantentzeko aiek oberenak.

*Astigarraga.*

*Altza:* Zugaitza onen os-toetan, koxkor batzuek izaten dirala, esaten dute erri ontan ta andik elbiak sortzen direla.

*Egiarrea:* Egur gogorra.

*Elorria:* Zuria, elutxeka ematen duna. Beltza, basakana. Emen diote, tximistak ez dula ukitzen. Zugaitz bedeinkatua omen da, Amabirgiña aren gainean Arantzazu'n azaldu zalako.

*Epurua:* Ostoz ainián atzekoa. Otarin modukoa. Bañoak artzeko egokia. Usai ona du.

*Erramua:* Onen bañuak in erida biguntzeko. Lesiue egiteko ta janariarentzat ona. Egosita, lurriñe ona osasunarentzat ta usai onekoa.

*Gaztaña:* Mota askotakoak; Japon gaztaña, fruta txikia ta materiala ona; berez sortzen da. Goiz gaztaña. Iñurrie. Mentulatz. Origaztaña, egosia jateko egokiena. Mixirriketa. Tolosa gaztañe. Muxuerra. Añagaztaña. Illeluzea.

Toki gutxitan bezelakoak dira gaztañak erri ontan, oso goxoak.

*Insuse.*

*Intxaurre:* Asko dago erri ontan. Len askozez geiago oraindik. Axala ariña ta mamia goxoa du. Maister batzuek, len, intxaurrekin ateratakoe-kin ordaintzen zioten nagusiari.

Zokotena botiketako ona da.

Zokotena, amurrayak arrapatzeko ere oso ona da; ondó astakatu ta tinte botatzen du ta orrekin amurrayak ateratzen dira.

*Izaia:* Gutxi.

*Karraskilloa.*

*Lertxune:* Pitzatzen ez dana.

*Lizarra:* San Juanetan atetan jartzen da, tximistak jotzen ez dulako.

*Norteko Aitza:* Asko irabazten duna. Osto aundikoa.

*Piñue:* Insignis geiñe, erretsine duna.

*Pagoa:* Asko dago, len geiago. Azpian egoteko

itzala ederra botatzen du.

Azpindegi'n daude ederrenak, ogeita amar metro gora dutenak.

*Ostazurie.*

*Saratsa.*

*Sugandorra.*

*Tila:* Nerbioetako.

*Txopoa:* Iru erakoak; bat sakatsa, bestea lisoa, beste makal karolinoa, bestea panpanoa. Au eskal malletan gastatzen da.

*Untze.*

*Urkia:* Gutxi da.

*Urritze:* Asko.

*Zumarra.*

*Zumea.*

*Zie:* Asko dana.

## 5/ 2. — FRUTAZKO ZUGAITZAK

*Arana:* Egosi ta urrengo egunean purga bezela artzeko ona.

*Gerezia:* Ezurrekin jatea ona estomagoa garbitzeko.

*Melokotoia.*

*Mizpirek.*

*Pikue.*

*Sagarra:* Esaera: «Aurten sagarrak, gazik eta ge-

zak, guzik gozoak izango dira».

Mota asko daude: Argarate sagarrak, Abaleie, Errege sagarra, Mendiola, Merkaliñe, Patxolosagarra, Pikosagarra, Santigosagarra, San Juan sagarra, Txorisagarra, Udaresagarra, Urkisagarra, Ibarbie.

*Udarea.*

## 5/ 3. — BASOAN LOREAK EMATEN DITUZTEN LANDAREAK

*Aiñarra:* Motza ta zarpatzua.

*Garoa:* Mendi garoa ta baso garoa.

*Gorostia.*

*Erratza:* Koxkor gorrik arantzekin. Tximinik garbitzeko.

*Oreano*: Arkaitzetan. Garai batean, odolkiak egiten ziran. Erleak maite du.

*Otea*: Ugari dago.

*Txillarra*: Altua.

*Goroldioa*.

*Larra*: Puntak txerrien ta personen diarrea senda-

## 5/ 4. — BELARRAK

*Amitze*: Ugariena etortzen da.

*Alpapa*.

*Askibelarra*.

*Aulbelarra*.

*Barrabasa*.

*Bostorribelarra*.

*Frantzibelarra*.

*Kardaberabelarra*.

*Illarraondokoa*: Artoalefor-

## 5/ 5. — BELAR OSASUNGARRIAK

*Andure*: Orren azala, errea ez eranstekoa.

*Axari satsabelarra*: Pixa egiteko.

*Bostorrie*: Purgante bezela.

*Ebakibelarra*: Zauria garbirik eukitzeko.

*Erremeroa*: Reuma ta txixarentzat. Legasa'ko Migel Atxega'k esana: «Ardotan egosi, zapi batean busti, ura jarri kolpea artutako tokian».

*Kallobelarra*.

tzeko. Masusta igalia jateko.

*lak*.

*Malma*.

*Menda*: Menda gaiztoa, arkakusoak gaitzeko.

Menda beltza, usai onekoä.

*Osiñe*: Odola metzeko.

*Otsolarra*.

makoa, gaztañaren formakoa.

*Iruorribelarra*.

*Kukubelarra*.

*Plantillabelarra*.

*Pagoxa*.

*Piparbelarra*.

*Sagastibelarra*.

*Santiobelarra*.

*Txikoribelarra*.

*Lipubelarra*: Beien lepo-kozkorra sendatzeko.

*Lizarraren azie*: Purgante bezela.

*Malma*: Estomagoa betea dan garaikoa.

*Millue*: Anisen antzeko usaia.

*Mutubelarra*: Xixarentzat.

*Miure*.

*Ostazurie*: Esetan egosita, atzan aurka (Azalean sortzen dan gaitza).

*Ostozabala*: Enplastoetako.

*Perrejille*: Iribarne base-rrian agiñako miña kentzeko, ondo xetuta belarrian sartuta.

*Illarraondokoa*: Bañoa emateko.

*Karraskilloa*: Ezpaiak egosita odola garbitzeko.

*Manzanille*: Tripeko miñarentzat.

*Mermena*: Enplastoak egiteko, Bronkioetako.

*Pasmobelarra*: Pasmoarean aurka.

## 5/ 6. — LOREN IZENAK

*Akezina*.

*Aiena*.

*Astalarra*.

*Ezkeraiena*: Paretan lore txuria.

*Saratzena*.

*San Juan lorea*: San Juanetan bedeinkatzeko ta gero ekaitza danean za-

*Sangrinariora*: Errape miñarentzat. Odola metzeko ere bai.

*Txaspikoa*: Aienan antzekoa, ostoa bakan bakan dula. Ukendua egiteko.

*Urritzaren mirue*: Kadena egiteko.

*Zaingorrie*.

*Zornebelarra*: Txustarra moztu ta esnea bezela eukitzen du.

tika surtara botatzeko. Bedeinkatutako lorekin, San Juan suari eskuka bat bota bedeinkatzeko. Beien errapemiñarentzat pertzan brasara eskuka bat bota.

*Zalkea*: Ori oria izaten du lorea.

## 5/ 7. — USAI ONEKO LANDAREAK

*Amabirjiñaren atzaparrak*.  
*Insuse*.

*Mendabeltxa*.

## 5/ 8. — PERRETNIKUAK

*Onak*: Gibelgorria.  
Gibelurdiña.  
Gibel orlegia.  
Kuletroa.  
Onto beltza.  
Ontozurie  
Otsaputzek, berri-tan onak.

Udaberriko xixak.  
Xixeoriek.  
Udazkeneko xixek.  
*Txarra*: Onto gorrik, autsi ezkeru urdintzen dana.

## 5/9. — BARAZKIAK

Aza.

Azanori.

Azelga.

Baina.

*Baratxuri*: Eusebi Mintegi'k esana, «Baratxurie zillarrezko atxurrekin jorrratu bear zala». Aidentzako txuritu ta gordiñik jan.

Letxu.

Lursagarra edo patata.

Perrejil.

## 5/10. — EGAZTIEK

Arranoa.

*Bele aundia*: «Egoaizea datorrela», koakoa dabillean, dio Modesto Aranak.

*Bele txiuk*.*Gabiroi aundia*.*Gabiroi txikia*.*Egalzurie*.*Ixxixue*.

## 5/11. — BASOKO EGAZTIAK

*Argiollarra*.*Arxoxoa*.*Basolloa*.*Ateak*.*Brankoliñe*.*Galeperra*.*Egabera*.*Kurrilloa*.*Porru*.*Illarra*.*Pipertxiki*.*Tipula*.*Tomate*.

*Liña*: Len egiten zan. Allorbea baiñan tipiagoa dauka azia. «Iriña egin, zabaldu, mostaza nastu, bularrean jarri». Oso ona da Legasa'ko aitonak dionez.

*Mirue*.*Mika*.*Okille*.*Ontza*.*Ontzamatza*.

*PUutrea*: Ombe'ko zuloan kabiak egiten dituzte.

*Sapelatsa*.*Ixtingorra*.*Ollagorra*.*Tortola*: Erdikoa, Aundia.*Txorleruak*.*Usua*.

*Kukua*: «San Juanetan kuku, San Pedro'tan muttu», esaten dute errian.

## 5/12. — TXORIAK

*Birigarroa*.*Gaztarroa*.*Enara*.*Krabeliña edo Jilgeroa*.*Kaxkabeltxa*.*Pinpiñek*.*Torretxoriak*.

*Txantxangorri*: «Amabirjiñaren dala. Akatzea pekatua dala», diote erri ontan.

## 5/13. — BASOKO PIXTIAK

*Azkonarra*.*Azarie*: Asko ugaritu da.*Arratola*.

*Basakatu aundia*: Len aspaldi izaten omen zan. Gaur ez dago.

*Basurdea*.*Bozkatsoa*.

*Erbie*: Begiak zabaldua lo egiten dula, diote.

*Erbinuria, Erbinioie*: Ardia-ri edo beiarri esnea edan ezker, galtzen zaiola titia, diote.

*Katagorrie*.

*Katamarta*: Arrea da, ixipu aundiakin.

*Katamatza*.

*Lepaxurie*: Larrua oso ona du.

*Ipurtatsa*.*Leporie*.

*Muxarra*: «Zarren juntetarako, aren olioia ona. Aren gantza, ontza on-

*Txepetxa*: «Amabirjiña'ri argia egin ziola ta Txantxangorri arantza atera», diote erri ontan.

*Saguxarra*.*Urtxorik*.*Zozoa*.

Txoriak kabiak egiten dituzte Orexa'n, millaka.

tzakoa ordaintzen zutela», dio Legasa'ko Aitonak.

*Otsoa*: «Gaiztoa dala. Amandrearen garaian, lastargiak inbiltzen zirala otsoaren beldurragatik. Negu batean arrastoa artuta gero gizonak txakur zaunka egiñaz, Urkietako magalean topo egin zutela. Aien parean pasa omen zan, amairun aiñeko pausoa egiñaz». Ori Legasa'ko aitonak esan zidan.

Azariaren baxbakin asi ondoren, akatu zituzten danak.

Illatie, orduan, illuntzean otsoei beldurra emateko izaten omen zan.

*Sagu*.*Satorra*.*Sataña*.*Urzakurra*.



## 5/14. — ARRAYAK

*Amurraie.*  
*Aingire.*  
*Kangrejoa:* Len etzegon.  
*Txalburua.*

## 5/15. — NARRAZTIAK

*Arrobiao:* Bustia dan garaian ateratzen da. Lertu ezkerro benenoa daukala, diote.  
*Iela.*  
*Muskerra:* Esaera zarra, «Belarrietan sartu ezkerro, zazpi errietan kanpaiak jo bear dirala».  
*Subea:* Asko daude ta

## 5/16. — BIZIDUN TXIKIAK

*Arkakusoa.*  
*Akañe.*  
*Amona mantangorrie.*  
*Armiarma.*  
*Artapoa.*  
*Barea.*  
*Elbi andik.*  
*Erlea.*  
*Eltxoak.*  
*Ezpa.*  
*Ipurtargie.*  
*Izañe:* Odol bilduak zupa-

## 5/17. — ETXEKO ABEREA

*Astoa.*  
*Akerra:* Gaitzak baztartzeko ikullutan ta artaldietan sartzen dute.  
*Ardia:* Askori izenak ema-

*Urzorrie:* Edan ezkerro, alkola artu bear omen da.  
*Xerbua:* Len bai, orain ez.

era askotakoak. Gorrie, Berdea, Zurizta, Arrea ta Beltza (Ikullutan gorrotzetan asko arkitzen dituzte).

*Surangille.*  
*Zapue.*  
*Ziraune:* Ez dula ikusten. Oska egin ezkerro su-bea baiño gaiztoagoa.

tzeko. Azkazaletan sartzen dala diote.

*Karakola.*  
*Liztorra.*  
*Mandaulia, Mandoelbie.*  
*Labezomorroa.*  
*Mixirrika.*  
*Sitse:*  
*Txingurrie.*  
*Tximutxa.*  
*Zorrie:* Len bai, orain ez.

ten dizkiete. 9 urtsko aurrak, Andres Iturrioz'ek emanak; Ixipumotza, Ari, Mixirrike, Burruntzik, Primo, Pinto, Ma-

kala (aitak jarria), Sasi (Andres'ek jarria), Motzotune (ille arroa kopetan; aitak jarria), Tibtakarra (Joakiñek jarria).

*Auntza.*

*Beiak.*

*Beorak:* Beorren umei; Beokak emeari; Zaldikoa arrari.

*Betizuk:* Mendiko beiak. Orain dala 36 urte kendu zituztela.

*Idiak:* Zortzi pare ezagutu ditut, traktoreak etorri arte.

*Konejoa.*

*Katua.*

*Mandua:* «Umerik ez, bearrrik ez», diote emen.

*Patoa:* Olloen gaitzen aurka ona dala diote.

*Olloa:*

*Txerrie.*

*Zakurra:* «Tximista tiratzen dula», diote. Era askotakoak daude; eize, ardi ta etxeokak. Legasa'ko aitonak esaten zidan: «Txakur eizea, pestarik onena».

*Zaldia.*

## 6/ 1. — OREXA'KO BIZTANLEAK

1970'ko Abenduaren 3'an zenbatuak:

Izatez: 144

Eskubidez: 145

## 6/ 2. — OREXA'KO BIZTANLEAK 1886 GARREN URTEAN

BASERRIAK:

<i>Alziturrieta</i>	= 6	<i>Idiarte 1.º</i>	= 8
<i>Bentaberri</i>	= 5	<i>Idiarte 2.º</i>	= 4
<i>Bidarte</i>	= 5	<i>Iribarren</i>	= 10
<i>Bidabe</i>	= 6	<i>Juandeaguirre</i>	= 7
<i>Txuriñe zarra</i>	= 5	<i>Lartea</i>	= 9
<i>Txuriñe berri</i>	= 5	<i>Legasa</i>	= 7
<i>Konsejo</i>	= 5	<i>Matxiñea 1.º</i>	= 4
<i>Etxegarai</i>	= 8	<i>Matxiñea 2.º</i>	= 5
(Eulea alde batean bizi zan, bestean olio saltzallea)		<i>Malkorra</i>	= 8
<i>Etxabe</i>	= 5	<i>Mikelenea</i>	= 4
<i>Etxeberri</i>	= 7	<i>Errota</i>	= 8
<i>Gaindirotza</i>	= 3	<i>Ormaetxegaraikoa</i>	= 5
<i>Gorzenea</i>	= 4	<i>Ormaetxe-azpikoa 1.º</i>	= 7
		<i>Ormaetxe-azpikoa 2.º</i>	= 6

<i>Unsalu 1.º</i>	= 9	<i>Sarregi</i>	= 10
<i>Unsalu 2.º</i>	= 6	<i>Urzuku</i>	= 7
<i>Paskualenea</i>	= 3	<i>Erretoretxe</i>	= 2
<i>Seroretxe</i>	= 2		

1901 garren urtean ustutzen da betiko Errota ta Aya'ko Alzola'ra dijoaz bizitzera.

1892 garren urtean agertzen da lenengo aldiz *Akullutegi* base-  
rria ta 7 biztanle ditu.

6/ 3.—ORAIN, 1973 GARREN URTEAN DITUN BIZTANLEAK, BERTAN BIZI DIRANAK

Baserriak:		Lentegietara:	
<i>Alziturreta</i>	=9		=1
<i>Mikelenea</i>	=9		=1
<i>Larte</i>	=6		
<i>Gogorzane</i>	=6		=1
<i>Matxiñe</i>	=3		=1
<i>Ormaetxegarai</i>	=6		=1
<i>Ormaetxe</i>	=6		=2
<i>Iriarte</i>	=4		
<i>Txuñe berri</i>	=5		
<i>Txuñe</i>	=9		
<i>Iribarren</i>	=8		
<i>Malkorra</i>	=4		=2
<i>Legasa</i>	=7		=3
<i>Erretoretxe</i>	=1		
<i>Sarriegi</i>	=3		=1
<i>Etxabe</i>	=3		=2

Danetara: 90 biztanle ta 15 langille inguruetako lantokietan.

6/ 4.—Amabost sendi bizi dira. Danak baserriarrak ta danak euskaldunak.

Ezkontza asko erritarren artean egiten dira. Amabost baserri-  
tik, amar baserrietan, erritarren artean egindakoak dira.

Lanerako oso langilleak dira ta gaiñerakoan zintzoak; buruz  
argiak.

Zerbait esan nai dutelako, gizon batzuen berriak jaso ditugu:  
Legasa'ko Jose Inazio Atxega txistularia, igandero etxetik erri-  
ko enparantzaraño txistua joaz etortzen zan. Menditik ezer eka-

rri gabe ez omen zan etxeratzen; bear ba zan, edo besterik  
ez ba zan, arri batekin orma egiteko etortzen omen zan.

Azkenean il zanean, pena bat bakarrik omen zuan: «Ordu ba-  
teko patata jorratzea gelditu zitzaiola». 82 urtekin il zan.

Matxiñe'ko aitona berriz, 85 urtekin il zan. Aste bat il aurretik  
perira joan ta sagar landareak erosi zituan ta lurrean sartu. An-  
dik egun batzuetara il zan. Sagar aietatik jango zuanik etzuan  
pensatuko.

6/ 5.—Euskera besterik ez da egiten erri ontan. Erderaz erritarren ar-  
tean egitea erri ontan, gaizki ikusia dago.

Erderaz geienak dakite.

Elizkizunak danak euskeraz dira.

Anaiarteko guda ondorean bakarrik, bizpairu urtetan, itzaldia ta  
errosarioa erderaz egitea, gotzaitetik apaiza beartu zuten.

6/ 6.—Erri onen euskera zeñen jatorra ta garbia dan ikusteko, asko  
erabiltzen dituzten itza batzuek jasotzen ditugu:

*Abaroa*: babesa, itzala ar-  
dientzat.

*Aburu*.

*Aldeztain*.

*Amor eman*.

*Arrandie*: uste pixko bat  
duna.

*Arraspa*: Lima bezelako  
tresna koxka aundia-  
goekin.

*Asekaitz*: beñiere asetzen  
ez dana; artzeko kon-  
tua besterik ez.

*Arreta*.

*Aztie*: asmatzen duna.

*Aztakatu*.

*Baneatu*: lurra baneatzen.

*Billaukeria*: zerrikeria.

*Biurritzen*.

*Destetxe*: karrexia.

*Idiak*.

*Elkor*: gogor antzekoa.

*Eltzarroa*: adarra soñua  
egiteko.

*Endan*: belarra pillan.

*Eoskorra*.

*Erretxindu*.

*Erremala*: aberen aurreko  
soka.

*Etekiñe*.

*Ezea*.

*Ezponda*.

*Galbarrak*.

*Galgea*: frenoia.

*Garaitu*.

*Gorbezie*: gozorik ez duan  
gauza bat.

*Goaitik*: abarkan lokarria.

*Illatia*.

*Illintxe, Illuntxe*: ikatza  
egiteko egurra, belztu-

tzen asita, ez danean erretzen.  
*Iminzioa*: ezin egona, aize xamarra.  
*Itzatzie*: etenak beazetan.  
*Ixikatu*: burla.  
*Ixkintsua*: oroitu gabe iges egin.  
*Izue*: beldurtie.  
*Izpie*.  
*Jipoya*: egurra eman.  
*Joaldia*.  
*Kalaxka*: gizon kalaxka.  
*Kotaroo*: gaxoa.  
*Labaindu*.  
*Laketu*.  
*Laitaie*: belarrien sinalea.  
*Lardakatu*.  
*Lausoa*: begitan lausoa edo iduripena.  
*Laztandu*.  
*Legea*: bidexur legea edo zikiña.  
*Lerdena*: lirañe.  
*Lerdea*.  
*Limurtu*: gozatu.  
*Lizundu*.  
*Luizie*.  
*Malkatza*.  
*Marga*: mendi sakona.  
*Marraka*: ots berdiña.  
*Medarra*.  
*Mintzik gabekoa*: azalik gabekoa.  
*Mokolea*: gaizki esaka.  
*Mutegi*.

*Nagie*: gogorra.  
*Narratsa*: egualdi narratsak.  
*Narra*: arrastan.  
*Naskarra*: ardi arrotza.  
*Parpallak*: txintxillikarioa.  
*Pataldu*.  
*Perraille*.  
*Perdesa*: utsunea, galera.  
*Ogitartekoa*.  
*Okela*.  
*Sastrakeri*.  
*Soraioa*: saltariña.  
*Suatza*: meta.  
*Sumindu*.  
*Tolestatu*.  
*Txalkorra*: bizkarrean konkorra.  
*Traskala*.  
*Txandaka*: mendiak larrutzen dituztenean.  
*Txirriken*: belarra menditik etxera sartzeko kablea.  
*Txokatilla*.  
*Uxarrear*: muturra lurra larrutzen.  
*Xorxeagoa*: min gutxikin.  
*Zapatza*: zakarra.  
*Zekena*: garbia ez dana.  
*Zeziña*.  
*Zotala*.  
*Zimela*.  
*Zontzotu*.  
*Zurre*: lepoko illea.

## 6/ 7.—EREDU BATZUEK, EUSKAL JOSKERA NOLAKOA DUTEN JAKI-TEKO-

— Gorputzaren aldia edo tenplea.	— Orpotik nago.
— Orain jauzi zera edo konturatu zera.	— Burua gaindu.
— Nolabait ala esan diozu.	— Txekorra zakurra milikatzen.
— Aldea bai latza.	— Eskumuturra beartu nuan ta miña jarri zitzaidan.
— Loaliakin zapalduta.	— Gurdí belarra osatu degu.
— Gizona biguñia ta beratsa.	— Lagunez osatu gera.
— Zeatz meatz.	— Nor edo nor joango zala ba zekiten.
— Loak artu zaitu.	

## 6/ 8.—AURREN ARTEAN MOKOLEAK EDO IXIKAK

Galtzaundi.	Petrala.
Aizapelatxa.	Ipurximurre.
Iarra.	Arroa.
Txoliñe, txoraa.	Putrea.
Txatxue.	Alue.
Txepela.	Urdea.

## ESAERA ZARRAK

6/ 9.—*Kristina Atxega*

«Beie min eta gurdie negar».  
 «Abendua illea: jai uts eta gabe uts».  
 «Abenduko izarrakin eta ostatuko neskatxakin ezin diteke fiatu».  
 «San Simon eta San Juda, udara jun da, negua eldu da, artzai gajua galdu da».

*Paula Gibelalde*

«Izenik ez dun gauzik ez dala, baiñan sorgiñak ba dula».  
 «Onez galtzen zailla, gaxotutakoan galtzen da».  
 «Erregeak ezkerro, eroak iarri».

«Arri ondarra egin da» (Arrituta gelditu naiz). Gaztaña asko ikusten zutenean.  
«Itxasoan dan arrairik obena, aldana».

*Felix Malkorra*

«Ezkerretako belarrie gorritzen danean, baten bat gaizki esaka ari dala».

*Robustiano Arrillaga*

«Gazteak oloa buruan». Oloa Barranka'n egiten da.  
«Dagoana buru aundi eta dabillena sabel aundi».  
«Mandoak umerik ez eta bearrik ez».  
«Kalearrak alkarri alde ezin egiñik bizi dira».

*Jenara Gastesi*

«Tarte ortan makilla autsiakin ez sartu».  
«Elur aundik ori du txarra, ateak ixten ditula».  
«Jokue ez da errenta, askoz ez obe ollue erreta edo kapoia askoz ez obe erreta».  
«Odolkiak ordañetan».  
«Oñezkoari eskerrik ez ta zaldizkoik arrapatu ez».  
«Azkar azkar nintzen, guzien bearrean nintzen. Motel motel nintzen baiña antxe pasa nintzen».  
«Olaxe gure kontuk, bi puntan lotuk ta erdin korapillatuk».  
«Ixilik dagonak uts egite bat; ari danak asko».  
«Artza ematen dezu». Ille ta bizar tenteakin ikusi ezkerro.  
«Otsoa aitatu, otsoa atean».  
«Txerriak ez dira sagar ustelak».  
«Abe Maria, aurrera bidea».  
San Markos'ek bere egunerako eskatu omen zuan, «Zintzarri bat belar bete eukitzeko, ze gerta ere».

*Iriarte'ko Jose Mari*

«Txerri gosea, ezkurra amets; ollo gosea, kantari; neska ase, dantzari».

*Modesto Arana*

«Artoan gatzan dañe ez dezu egin». Egualdi txarretan, jendea lana egin gabe zegoenean, au esaten zuten.

*Maria Iturralde*

«Lo ondo egiten dunak arrika ere ez dago galtzerik».

*Txune'ko Joxe*

«Beorrean eta erlean, dana ez jartzeko» esaten zuten lengo zarrak.

**Beste batzueri entzundako esaera zarrak**

«Tolosa'koak eze ezak».  
«Eltzarroa jo ezkerro, beorrek izutzen dira».  
«Alde aldeko gizonari, ala artu bear zaio» .  
«Kalparra ondo dantzatu dio».  
«Barrenak agindu al dik».  
«Orrela edan ezkerro, gizon usaiak alde egiten dio».

**ATERALDI JATORRAK***6/10. — Migel Atxega*


Gazte bat etxe batera dijoa, maite mindua billa. Bi bizitzako etxea zan. Etxeko andrea atera zaionean: «Bigaren bat, ba ote zeukan» galdetzen dio. «Zuk bear dezuna beste atean dago», erantzuten dio.

*Paula Gibelalde*

«Txantxangorri batenak, sei libra tripaki. Aren ama zeintzan, Xenpelarrek daki. Itxasoan ari ziran arbolak aldatzen Itsuak ikusi du, etxea erretzen Mutuak bere bear ez, jendea bildutzen Anka motzak ba zekin bidean korritzen».

*Jenara Gastesi*

«Erropa onekin joan bear al det?» galdetzean. «Zaldibi'ko kanpaiak jotzen dula, duna dunakin».  
Alkiza'ko kanpaiak jotzen du: «Dirua dagola, Peru ta Lete'n, PERU TA LETEN...»



*Orexa'ko bidean dagoen Ixtilleta izeneko baserriko Patxik*

Soldado txiki bat ikusita; «Orrek tiroari ze indar emango ote dio?»

Ipintza'ko aitonari, Lizarza'ko mutillak alkarrekin basoan:  
«Illea atzo moztu nin. Ze moduzkoa ematen du?  
KAPONARRA motel!»

*Jesus Mari Balerdi*

«Odolkiak ez ditugu geroko uzten».

*Jone Iturrioz (sei urte)*

«Ze uzte den, ura meloya dala, iri antza ez emateko?»

*Maria Luisa Arrillaga (bost urte)*

«Maria Luisa, ondo egon al zera eskolan? —apaizak.  
Neska batek, nunbaitetik. —Ez.

Ni au baiño txintxoago natxion», —Maria Luisak.

7/1.— Erria naiz oso txikia izan, ba ditu iru auzo. Bat, eliza ta Errikoetxearen inguruan. Bestea, beraxeago, Elbarrene izenekoa ta irugarrena elizatik sortaldera San Markos izeneko baselizaraño dijoan bide ondoan dagona ta izena lntxaurpe du.  
Beste bi baserri ba daude Lizarza'ra dijoan erregebide ondoan. Baita beste baserri bat bakarrik, errekarren gaiñeko aldean ta Elbarrene auzoaren azpian.

7/2.— Etxe danak bakarka daude. Ez dago bi bizitzako etxerik beteta, utsik bat baizik.  
Ia danak beren etxen nagusiak dira, iru ezik.

8/2.— Usturik eta oso ondatuak dauden etxeak auxek dira: *Jauanagirenena, Birabe, Bidartetxe, Akullutegi, Unsalu, Paskualene, Etxegarai*.  
*Etxeberri*'ra noizbeinka etortzen dira nagusiak, oporketak iga-rotzera.

8/3.— Etxe danak atzeko aldea, iparraldera daukate, sartaldera. Etxe aurrea berriz, sortaldera. Beste batzuek berriz mendi aldera, bidera ateratzen direla; gelak eta balkoiak aldapa aldera dituzte. Atzetik goraño ondo itxiak dauzkate, ganbaran belarra ez usteltze arren.

8/4.— Len etxe danak izengoitiak izaten zituzten. Geroztik aztu dituzte. Geienak agertzen ditut.

*Alziturrieta*: Atorrabiurri.

*Juandabarrene*: Txerribuztan.

*Paskualene*: Kiskilikaskulu.

*Mikelene*: Kartolatxulo.

*Larte*: Txopilapain.

*Gogorzane*: Gorotzaundi.

*Matxiñe*: Ibiliturri, Matxiñemando.

*Etxegarai*: Esolabuztan.

*Konseju*: Ardozorro.

*Ormaetxe*: Txelatero.

*Unsalu*: Txiletero.

*Iriarte*: Kaikopurru.

*Txuñeberrí*: Taloterdi.

*Txuñe*: Kapaundi.

*Iribarren*: Irrixtari.

*Malkorra*: Kopetaundi.

*Legasa*: Babazorro.

*Sarriegi*: Sartuatera.

*Urkuzu*: Kanpazo.

Saturnino Gastesi erretorak, izen oiek esatea debeku zuan. Geroztik utzi dituzte.

Gizon batzuen artean, noizbeinka, Konseju'n esaten dute itza, «xalda bero» da.

Errian esaten dutenez, izen goiti guzti auek, Belizturri etxeko iru neska itzmotelak ateriak omen dira. Ara nolakoa dan ipuia Larte'ko Migel'ek esana, 1973 urtearen Ekainan: «Belaizturri'ko etxean iru neska itzmotelak bizi ziran. Gizon-gaiaren zai omen zeuden eta amak esan omen zien:

— Zuek ixillik egon, nik itz egingo diot.

Ardatzen zeuden. Neska oietako batek esan zuan:

— Nere ariak tital.

Besteak erantzun zion:

— Eten batain eti aton.

Irugarrenak:

— Nik, amak etan dun betela, itilik itilik naton.

Senar-gaiak esan zien:

— Iru alabatxo, iruak itzmotelak.

Neska zarrak atzetik zioten:

— I berriz antotela.

8/5.— Orain dala bosten bat urte, etxe batekoak, errian, udaran, ura naikoa izate arren, tuboari giltza bat jarri zioten. Giltza ori kentzera egun batean gizon asko joan zitzaizkien, etxekoandrea aserratuta, gizon aiek orrela bataiatu zituan: Tripustela, Belarriaundi, Kojoa, Ankazabala, Begioker, Gorra, Ipurtiar-eskeletoa, larra, Beatzmozta.

9/1.— ERRIAN DAUDEN ARDI BORDEN IZENAK

Arane izeneko tokian: *Etxegarai*'ko Borda, Sarregi ta Txuñe Zarreko borda bat, Legasa'koa, aurrerago Malkorra'koa.

*Atxiki* Borda Iribarren'goa.

*Bordatxiki*, *Artetxealde ta Txuñeberrikoa*.

*Uxañe*'ko Bordak: *Larte*'koa ta *Bordatxiki* eroria Iriarte'koa.

Narbaizu'n: *Bartetxe*'koa, *Gaingorotza*, *Sarriegi*'koa, *Etxegarai*'koa errea.

Orunde'koak: *Txuñe*'koa, *Ormaetxe*'koa, *Akullutegi*'koa.

*Akullutegi*'n: *Akullutegi*'koa, *Ormaetxe*'koa.

*Beorte*'n: *Unsalu*'koak bi.

*Oiantxiki*'n, Mikelengoa luiziak eramana.

*Itxipita*: *Mikelen*'goa, *Paskualen*'goa, *Juandabarren*'goa, *Alziturrieta*'koa (*Txetxu* borda).

*Errotane*'n: *Paskualen*'goa eroria.

9/2.— Borda batzuen inguruetan soroak daude ta lurak ondo itxeko, ataka, esie, langa, langabera, zontoya, langa sareak, emen edo an, ikusten dira.

10/1.— BIZIBIDEAK

Amabost sendiak baserrietan bizi dira. Geienak baserrietik bakarrik bizi dira.

Inguruetako lantokietara, iru gizon ezkonduak bakarrik dijoaz lanera.

Danen artean lanera dijoaztenak egunero amabost dira.

Esne beietara jotzen dute etxe geienetan. Esnearekin eta aragiarekin ateratzen dute bizia. Baserriko lanik astuna belarra beientzat biltzea da.

Etxe geienetan ardi mordoxka eukitzen dute.

10/2. — Orain dala bi urte Iberduero'tik argia errira ekartzekoan, Zentral zarra Legasa'ko semeak zurginak artu du. Bere lantokitik alde lana egiteko dauka.

Errian lanik astuena, udaran belarra biltzea izaten da. Neguan berriz piñudiak garbitzen ibiltzen dira.

### ETXEA

11/1. — Erri ontan, bizitokiari «ETXEA» deitzen diote. Ez dute beste izenik ezagutzen. Gaiñera, ere, ETXEA esan bearrean BASERRIA itza erabiltzen dute.

12/2. — Etxe geienak sortaldera begira daude. Amabostik, amairu. Sukaldea ere sortaldera daukate, amabostik, amairu. Ikulluaren sarrera sortaldera begira; amabostik, amairu. Bizitzaren atea sortaldera daukate; amabostik, sei baserrik. Etxeak nola aldapan egiñak dauden, bidea gaiñeko aldetik daukate.

Bizitzaren atea, bidera zuzenean ematen dutenak; amabostik zortzi.

Etxe batek dauka bakarrik iparraldetik sarrera.

12/2. — Erria egutera aldera dago, baita etxe danak ere.

12/3. — Baserri danak bakarka daude, baiñan batetik bestera ez ain urruti.

Etxe bat bakarrik dago urruti xamar; aldameneakotik kilometro erdi batera.

12/4. — Etxe geienak, berebilla bertaraño sartzeko moduko bidea daukate; amabostik 8.

Ezin dute berebillik etxeraño sartu, amabostik zazpi.

12/5. — Baserri geienak, lurra etxe inguruan daukate.

Etxe azpian baratza; amabostik amaika.


13/1. — Etxe geienak baserriak dira; amabostak.

Gaiñera ba dago, eskola ta maestraren bizitza. Baita Erretoraren bizitza.


Errikoetxea enparantzaren sartaldean dago ta goraxeago Eliza.

### MATXIÑE

#### IKULLUA




LEN




GAUR

#### 1<sup>er</sup> BIZITZA




LEN




GAUR

#### GANBARA



GAUR


#### 2<sup>er</sup> GANBARA (Belarrarentzat)




GAUR

TXUÑE

UPATEGIA




IKULLUA TA BIZITZA




LEN

GANBARA




LEN

SAPAIA




IKULLUA TA BIZITZA



GAUR

GANBARA



GAUR

Len Etxeberri izeneko etxeari Oroitz deitzen diote orain eta nagusiak Donostin bizi dira ta egun batzuek igarotzera noiz-beinka datozte.

- 14/1.— Etxe danak bi eroriko tellatua daukate; azpialdea ta gaiñeko aldea izenekoak.  
Erretoretxeak ta Errikoetxeak lau erori bakoitzak daukate.
- 14/2.— Etxe geienak zabalak baiño luzeagoak dira.
- 14/3.— Aldapan egiñak; amabostik amalau.
- 14/4.— Bi eratako baserriak ikusi ditzazkegu; batzuek sukaldea ta ikullua mailla berdiñean daukatenak; amabostik bost. Besteak ikullua beran ta sukaldea goien daukatenak; amabostik amar.
- 15/1.— Etxeak iru gauzetarako egiñak daude:  
Sendia=bizitza.  
Abelgorriak=ikullua.  
Belarra=ganbara.  
Ori dana toki berean eukitzeko nai ta naiez etxe aundiak euki bear.  
Bi alderdietan orma lodiak dituzte.  
Tella gorriko tellatua daukate; euri asko egiten dualako.  
Ipar aldera ganbara itsia daukate. Iparrak beti orma ondoan dagon belarra, bost zentimetro gutxinaz galtzen du.  
Ganbarak, sortaldetik geienak irikiak eukitzen dituzte ta an belarra sartu bezela egoten da.
- 15/2.— Etxeak zabalak dira, bizitza ta belarra batean eukitzearren. Sortaldera begira daude osasunarentzat ohea dalako.  
Ganbaraiño sarrera bidetik zuzenean egiña daukate ta orrela bertaraiño sartzen dituzte belarrak.  
Ipar aldea ta ego aldea txarrak dira aizeak asko jotzen dulako. Bi ayeka oiek nai ta naiez itsiak euki bear. Sortaldetik berriz-irikia askozoz ohea dalako.
- 16/1.— Arkitzen diran baserrien eredu bezela, bi azalduko ditugu. Bat, sukaldea ta ikullua neurri berdiñean daukana. Bestea berriz, ikullua bean eta sukaldea goien.
- 16/2.— Etxe batean, Ormaetxegarai-n, ganbarako sarreran estalpe eder bat dauka *Karre*a izenarekin ezagutzen dutena.



17/1.— Migel Atxega Legasa'ko aitonak esan zidan etheen oñarriak nola egiten zituzten: Oñarri sendoak eukitze arren, arkaizta gogorra billatu arte zuloa egin. Zuloa beian zabala, gero relaja koxka bat zabalagoa. Gero mearragoa.  
Relaja arriak, Aitxikin ba daude galantak.

17/2.— Ormentzat, arri egokia billatu ta morteroakin egin.  
Morteroa, len lurra kareakin nastuta egiten zan.

17/3.— Migel Atxegak esan zidanez, gelen arteko ormak, len, lenda-bizi urritz makillakin etsie egiten zuten, gero lurra ta kareakin ondo itsi; batzuetan lurraren orde zroskarekin edo troskaren lurrarekin ixten zuten; zirritoak ondo estaltze arren. Orrelako lanak, usturik dagon Akullutegi'ko baserrian bakarrik ikusten dira.  
Orain barrengo ormak, bustinerrearekin edo ladrilloarekin eginak daude.

17/4.— Arria, karea, troska ta urritza, naikoa billatu diteke Oresa'ko lurretan.

18/1.— Baserrien sapaia, oso egal zabalakoa da; argazkietan agertzen dan bezelakoa.

18/2.— Sapaiaiko egurrak dituzten izenak, Legasa'ko aitonak esan zizkidan bezela.

Goitik bera asita:

Goiaga.

Kontragoiaga.

Astazaldia.

Zuntoia (pillareak).

Zapata, pareta gainean dijoana.

Kapiricak, lata azpian dauden enbor txikiak. Kapirio batzuek oso landuak izaten dira, adibidez, Malkorra, Ormaetxegarai ta Errikoetxean ikusten diran bezela.

Artala; lodigoak tellatu ertzetan.

Txiñiela.


Saetazuloak; pareta ta tellatu tartean dauden zuloak.

Gallor, gain gaineko zatiari.

Gezur goiaga, ia ertze aldera dagona, baiñan pillarerik gabe.

Frontalak, pillaretik pillarera dijoazten egur aundiak.

Gain gainean tella.



- ① GOIAGA
- ② KONTRAGOIAGA
- ③ ASTAZALDIA
- ④ ZUNTOIA
- ⑤ ZAPATA
- ⑥ KAPIRIOA
- ⑦ LATA
- ⑧ TELLA
- ⑨ ARLATA
- ⑩ TXIÑIELA
- ⑪ SAETAZULOAK
- ⑫ GALLOR
- ⑬ ZORUE
- ⑭ PILAREA
- ⑮ FRONTALAK

- 18/3.— Etxeak, lau ixuriko tellatua daukanean, goiagatik etxe ertzeroa dijoan egurrari, *Agiloia* deitzen diote.
- 18/4.— Sapaiaiko etxegintzaren gaiak, tella, arrilosa ta aritza dira.
- 19/1.— Bi ojako atea dira erri ontan; geienak 2,25 gora ta 2 metro zabalean.
- 19/2.— Leioak, bi ojakoak; geienak metro bat gora ta 0,80 zabalean. Erretoraetxeak leyo batzuetan leyatillak ditu.
- 19/3.— Ormetan dauden zirritu me ta luze batzuei, *Saetak* deitzen diete. Erriko baserri askotan daude. Begiratu batean errex ikusten dira.
- 19/4.— Sarraillak, geienetan morrolloakin daude; palanka bat bezela. Len ate geienak maratillakin ixten ziran, baita trankarekin. Trankaren izena erri ontan ateala da. Orain etxe askotan, atea giltzekin ixten dituzte; giltza luze aundi oietakoak edo berriak txikiak.
- 20/1.— Etxe bakanetan Kontragoiak koxkekin apainduak dituzte. Etxe bakan batzuetan ere tellatuan eta ormetan, Gurutze aundi batzuek pintatuak dauzkate.
- 20/2.— Ez da iñun armarririk arkitzen. Etxe barrenak ez dituzte apaintzen; ez sapaia, ormak edo leyoak.
- 21/1.— Beko sua bi etxetan bakarrik ezagutu dut. Gaur etxe batean gelditzen da. Len etxe danetan zuten; etxe batzuetan bai galantak, sukaldearen erdian, tximini borobil galantakin naiko zabala; Paskualen'goa ondo ikusten da ( $2\frac{1}{2} \times 2\frac{1}{2}$ ) ta Ormaetxegarain. Beste suak orma ondoan zeuden.
- 21/2.— Beko suaren tresnak, aipatzen ditudan izenekin ezagutzen dituzte:  
Su azpian burni bat  
Atzean beste burni bat irudiakin.  
Labatza burnea erdian txintxillika, pertza jartzeko.  
Kuadroko tximinia troskako arriarekin.  
Kurtiñe edo tximini zapie inguruan.

- Su burniak egurra eukitzeko.  
Erretzeko egurra; zotzak, arbak, egurra.  
Aga, tximinia garbitzeko.
- 21/3.— Etxe geienetan, goiko burnizko sua dute (sukalde ekonomiko oietakoa).  
Gaur berriz, gasezko sukalde berriak etxe guztietan jartzen ari dira.  
Neurri berean dauzkate jarriak: egurraren sukaldea, gasezkoa ta garbaska.  
Beste aldean, ontzientzat ta ogiarentzat arasa, izozkutxa ta garbikutxa.
- 21/4.— Eusebi Mintegik esan zizkidan bezela, sukaldeko beste tresnak ziran:  
Zizallua; eseritzeko alxia, mai batekin erdian.  
Beste mai bat.  
Krispie.  
Talomantue; taloa zutik jartzen zan.  
Neskamea; eltzea berotzeko. Esnea berotzen, an, jartzen zan.  
Taloburnie.  
Lapikue.  
Burruntzia.  
Lurrezko eltzeak.  
Kobrezko pertza.  
Almaizeroa.  
Suburnea.  
Kearrak.  
Sulle:  
«Buruan artuta iturrira joaten zala Joakina, Ormaetxegariko Pedro'n ama».  
«Ametsetan, Orexa'ko errotara, sulle buruan artuta ate joka nola aritzen ziran».  
Legasa'ko Migel'ek esan zidan sukaldean eukitzen zituztela: Arraska edo fregadera bere alturan. Gaiñera, maiak, alkiak, apalak; arasa (armarioak).
- 22/1.— TXIMINIARI BURUZ ESAERA ZARRAK  
*Kristina Atxega:*  
«Olentzero, Gaboneko tximinia garbitzen ibiltzen zala».

«Olentzero, orain etorriko da, tximini bera, Eguarri bezperan».

*Eusebi Mintegi:*

«Etxeko labatzak jakiten zula etxeko berri».

«Olantzaro tximinitik bera etortzen zala», esaten zuten zarrak.

«Ekaitza ba zetorrek, asi dituk kearrak».

23/1. — Tximinia, orain len bezela, kearentzat eukitzen dute; bidea izan dezan.

Len suari indarra emateko, auspoa erabiltzen zuten.

23/2. — Mikelen'go baserriko nausiak etzuan nai izaten, masterrak tximinitik eukitzea.

Orduan, kea, sukaldetik ikullura zabaltzen zan eta ango zirri-toetatik landara.

24/1. — Len baserri danak, ogia egiteko labea zeukaten. Batzuek bota dituzte.

Oraindik, zutik iruren bat gelditzen dira.

*Argazkietan ikusten dira gelditzen diranak.*

24/2. — Labeko tresnak, Eusebi Mintegik esan bezela auexek dira:

Labendaie, ogie sartzeko pala.

Peakie, eskobarea bezela.

Palarra.

Erratza.

Orramaie, masa egiteko ola.

24/3. — Labegintzaren gaiak Legasa'ko aitonak esan bezela:

Zoruan ladrilloa edo bustinerrea, Arkoa edo gaiña, troskarekin egindako masa ta tellatua.

24/4. — Labearen tokia:

Ate ondoan, edo sukaldean edo sukalde ondoan zegoen.

24/5. — Labea, ogia ta pipar opilla egiteko zan; pipar opilla paper gaifian jartzen zan.

25/1. — Etxetan orain dala bi urte ezkerotzik, argi indarra daukate. Iberduerok emana. Illunduta, etxetik alde ibiltzeko linternak erabiltzen dituzte, baita ere kandela farolakin.

25/2. — Len berriz zer?

*Eusebi Mintegik dionez:*

a) kinkea, ojalataskoa, makillan sartuta argimutillan.

b) argizarie.

d) esperma, kandela txikie.

*Migel Atxega, Legasa'ko aitonak dionez:*

a) kinkea karburuakin.

b) argizaria gelara joateko.

d) errira joateko, lastoa edo garoa.

*Paula Gibelalde dionez:*

a) krisallua.

b) argizarie ta petroleoa.

d) errira joateko, lastoa edo garoa edo poxpoluekin.

25/3. — Paula Gibelalde dionez, argi zarie eusteko, ojalatazko kirtenak eukitzen zituzten.

25/4. — Nola pixtu sua?

Legasa'ko aitonak dionez, suarriarekin ardaia berealaxen pixten da. Baita poxpoluekin gaur bezela.

Etxe batzuetan ba daukate tresna berri batzuek ere.

26/1. — Sukaldea, ikullu gaifian daukaten etxetan, ba dituzte entrada ederak.

Entradetan, len bildutako jan gaiak eukitzen zituzten; gaztaña, artoa, garie, sagarrak eta abar.

Entradik ez duten etxetan, jan gaiak ganbaran gordetzen zituzten.

Jai aundietan, sendi osoa biltzen danean, Salan bazkaltzen dute.

Salan, armarioetan, arropa zuria jasotzen dute ta kutxetan ontzie.

Saletan ikusten dira; maia eder bat erdian, alkiak eta ordukari luze bat.

Ormetan berriz txintxillik, sendiko eta ezkontzetako argazkiak.

Geletan berriz; oiak lo egiteko ta arasa bat eta alki bat. Paretan iltzean txintxillik, santuen kuadroak.

26/2. — Lo egiteko gela len senar emazteak eukitzen zuten; beste danak alkobetan.

Etxe askotan, alkobak saletan izaten ziran. Alkobak, oial zuriekin edo kurtinekin ixten zituzten.

Etxe batzuetan, entradatik salara sartzen ziran ta salatik alko-bara.

Alkobak bi etxetan gelditzen dira oraindik. Mikelene'n ba dago sala, bi alkobekin. Ditutzen neurriak auexek dira: 2,30 x 2 metro. Oia bat bakarrik sartzen da ta mesilla bat. Salaren atzeko aldean kuarto zarra dago.

Utsik dagon Paskualene baserrian, salak 6,25 x 4,50 metro ditu ta lau alkoba.

26/3.— Gaur etxe geienetan gela berriak eta ederrak egiñak dituzte. Toki geienetan bi oietakoak, arasa batekin, bi gabeko mai txiki-ekin ta bizpairu alki.

26/4.— Erri ontako gauzik ederrenetakoak kutxak dira: asko ta ugari.

Nik ikusitakoak auexek dira:

Legasa: lau.

Malkorra: bat.

Iribarren: bost.

Txuñe: bi.

Txuñe Berri: bi.

Iriarte: bi (Bat eman dute).

Matxiñe: iru.

Larte: iru.

Mikelene: bi.

Sarriegi: iru (Iruak saldu dituzte).

Etxabe: bat.

Gaiñera bi seaska daude oso politak Larte'n, beste bat Txune'n ta alki bat Txuñe Berri'n.

*Ikus argazkiak.*

27/1.— Etxe geienetan, barrenean, tellatu azpi berean eukitzen zituzten dan danak: olioak, konejuak, txerriak eta abar. Baita ximaurrak.

Orain dala oso gutxi, etxe batzuetan ximaurtegiak etxearen gibelean egin dituzte; amabostik lauk.

Etxe batean aurren parrilla jarri dute ikulluan eta zikiñak andik zulo batera dijoaz zuzenean.

27/2.— Legasa'n txerritegia etxe ondoan daukate; egurrekin egiña ta gañean losa bat.

27/3.— Legasa'ko artitxalde edo txabola. Bizpairu urte egiña. Legasa baserritik eregebidera dijoan bide xiorraren gaiñekoaldean aitonak egiña; baserritik 50 metrora.

Atzean ta ezkerrean tupe du; eskubi ta aurrean, espardea; ganbelak, atze, eskubi ta ezker.

Espardea, eskubian zear jarria, atea berriz goitik bera oso polita. Ogei ardiertzat egiña. Ganbara txiki bat bezela egiteko espardea jarria, tresnak eukitzeko. Aienakin atea lotua (aitonak ala dio, «sokan pareta egiten du aienak, oso ona da).

Artitxalde onek luzean bost metro ditu ta zabalean 3,80 metro.

27/4.— Ollোক orain, burni sareko kayoletan eukitzen dituzte etxe guztietan. Batzuek upategian, besteak ikulluan ta besteak ganbaran.

28/1.— Erriko bordak nolakoak diran jakiteko, Legasa'ko Arane'ko borda azalduko dugu, xetasun asko emanaz:

Sarrera sortaldetik dauka.

Luzean, 13,170 mtr.

Zabalean, 6 mtr.

Gora, 4 mtr.

Ikulluko ate aurrean sarrera du, ta KARREA izena ematen diote. Toki ori ardiak jezteko da. Karre gaiña egurrekin egindakoa. Ezkerrean Karre barrenean, apal bat orman dago, marmite lekue izenekoa.

Karreak, 2,20 mtr. luzean ta 6 zabalean dauzka.

Borda ikullue: gora 2,50 dauzka. Bi aldetatik ardiganbelak edo Kurterea.

Eskubira, bi leyo eta arnasbide bat atzean. Ezkerreta, malladia ganbara igotzeko.

Malladiaren sarreran. Langa txiki bat dago. Langa ori zutik eukitzeko, orman erantsia dagon urkillek eusten du makilla. Langa ate sarea bezela egiña da ta morrolloa du giltzarekin.

Goien, Borda ganbara dago. Belarra ta lizar ostoa eukitzen zuten negurako.

Eskubian iru leyo sare ikusten dira ta ganbarako atea ezkerreta.

Egur ederrakin egiña da: goian Txinela, Astazaldia azpian, gero Goiaga ta Kapirioak. Olan azpikoak Solibek, ezker eskubi FRONTALA. Leyoaren gaiñeko egurra, KAGADEROA. Sarrerako atean, erramuzko gurutze bat jarria daukate.

29/1.— Etxe guztietan sukaldeak berritzen ari dira. Zola baldosazkoa ipintzen dute.

Ormetan ia goraiño, azulejoa.

Garbigelak ere etxe geienetan egiten ari dira, bere urintza ta garbaska ederrarekin; komuna erosoak jartzen dituzte azulejoekin ondo inguratuak.

Sukaidea amabost etxetik bederatzitan berria jarri dute.

Garbigela berriz, berdin, bederatzita etxetan berri berria.

30/1.— Sua nola gordetzen zuten, Eusebi Mintegik esan zidan:

Ardaia suakin lurpean sartuta eukitzen zuten.

Gaueko prasa surteko autsekin bilduta.

«Sua bedeinkatuta joaten ziran oiera gure amonak: Sua sifiatuta oera joan ta burni gantxua zulotik sartuta gaifnean jarri». Ala egiten du Eusebik oraindik. Ortaz, etxeko iñor etzan oartu, billoba txikiak ikusi du bakarrik amonak nola egiten dun.

Amonaren esana: «Oera, sukaldea garbituta joan bear zala, aingeruak dantzari ibiltzen ziralako».

Kristina Atxegak esana: «Sua gordetzeko, len dana bildu ta autserregaiñean bi su burni ondoan, tenazak gurutzeta jarri».

Jenara Gastesik esana: «Brasa, iakin egindako erratz batekin biltzen zan».

31/1.— (*Eusebi Mintegi*)

Pazko bezperan, etxean dagon su zarra atera ta elizatik ekarritako berria sartu egiten da.

(*Jenara Gastesi*)

Lengo zarrari, «ara berria urte guzirako», Pazko bezperan su berria sartzerakoan esaten da.

31/2.— (*Migel Atxega*)

Len bezela, San Juan bezperan, sua etxe ondoan egiten da.

Ortza ateratakoan, sura bota ondorean esaten zan, «Tozak zarra, ekatzak berria».

32/1.— (*Jenara Gastesi*)

Ume txikia jaiotzen danean esaten da, «Jainkoak bedeinka dezala».

(*Migel Atxega*)

Abere berria ekartzekoan esaten da, «San Antoniok bedeinka dezala».

33/1.— Etxetan otoiiza egiten da:

- a) Beartuta, aurra gaizki jaiotzen danean.
- b) Eguneroko errosarioa esaterakoan. Oraindik amabost etxetik zazpitan erreztatzen dute. Etxe batean egunero errosarioa kantatuta erreztatzen dute; bertako doñu batekin gañera, Iribarren baserrian.
- d) Bazkaltzerakoan etxe askotan erreztatzen dute.
- e) Ekaitza sortzen danean.
- f) Illen bat etxetik ateratzekoan; etxe barrenean biltzen dira gorputzaren ondoan.
- g) Gaxoei, igurtzia edo Jauna eramatekoan.

33/2.— Elizan, argiolak (fuesak), etxe guztietakoak eukitzen zituzten.

Nik kendu nituan danak, eliza, garbiago ta erosoago eukitze arren eta alki eder batzuek jarri nituan.

(*Migel Atxega*)

Norbait ill ezkerro, gorputza ba zan etxen batean, kandela aundia eukitzen zuten elizan urte osoan.

Norbait iltzen zanean, entierroan, etxe danekoak, kandelak jartzen zituzten, ortarako elizan zeukaten tokian edo sepulturan.

(*Jenara Gastesi*)

Mezetan argizai bat eukitzen zan pixtuta.

Urtean, norbait il zan sepulturan, bi argizai. Etxealdekoa ba zan kandeia aundia.

Ogia meza nagusitan eskeintzen zan; librako ogia nagusiak eta txikia besteak.

Ogia elizan zapin bilduta eukitzen zan meza denboran eta ofrendan, errenkan jarri ta sestean uzten zan. Aurrena alkatea joaten zan.

Kofradiko mezetan, intxentxua sepulturetan iru aldiz jartzen zuten; asieran, ebanjelioan, meza erdian.

(*Eusebi Mintegi*)

Anibersariotan, su ontzia elizakoa ta ura sepulturan jartzen zuten eta serorak intxentxoa botatzen zion.

33/3.— (*Paula Gibelalde*)

Kandela zurie ta argizaiak pixtuak eukitzen ziran. Jaietan erresponsoak atera ta opillek ofrenditu.

Zamaoa edo Zamayoa toallan posturakoan, ogia etxetik eramán. Nagusiak lauko ogia bilduta; maisterrak biko ogia bilduta.

33/3.— Etxeak ez daukate illerrian edo kanposantuan toki berexirik edo obirik.  
Norbait iltzen danean, al duten tokian zulo bat egiten dute ta bertan sartzen.

34/1.— Bataiatu gabeko aurrak, illerriko bazterrean uzten zituzten.

35/1.— (Migel Atxega)

Etxea bukatzean, erramua jartzen zan ta etxeoandreak gallor festa edo galdor pesta ematen zuan.  
Lenengo frontala jartzerakoan, botilla ardoakin etortzen zan etxeoandrea.

35/2.— (Migel Atxega)

Etxea apaizak bedeinkatzen du; len karobiak bezela; karobia sutzen zan garaian apaizak bedeinkatzen zituan.

35/3.— (Migel Atxega)

Ekaitzetan, erramua bedeinkatua sutan erre ta kandela pixtu esanaz, «Santa Barbara, ora pro nobis».

(Jenara Gastesi)

Baratzean «izugarrie» edo muñekoaren modukoa ipintzen zan, txoriak uxatzeko.

Ekaitzetan, San Juanetan bedeinkatutako lore xortatik zati bat surtara bota.

Egun ortan bedeinkatutako gurutzeak soroan sartu. Elorria ta lizarra San Juanetan atean jarri tximistan ta etsaien aurka.

(Eusebi Mintegi)

Ekaitza danean kandela pixtu len bait len ta erramu osto bedeinkatua bota surtara.

Pixtien kontra «kukusoak jarri soroan».

(Kristina Atxega)

Ekaitzetan, «Santa Barbara, ora pro nobis», kirilisonak esanaz.

(Pau'a Gibelalde)

Ekaitzetan, ikaratu ta errezatu bear.

San Juan sua ortarako izaten da; subeak eta zapoak sortu ez ditezen.

Etxe ondoan abarka zarrak ortarako erretzen ziran.

35/4.— (Migel Atxega)

Ikullua babesteko, San Antonion kuadroa jartzen zan.

(Eusebi Mintegi)

San Markos baselizan bedeinkatutako olioá beientzat izaten zan. San Markos baselizan jartzen ziran kandelak beien alde.

(Kristina Atxega)

Artoen arrarentzat, zaiñeko muñe jaten bait zion, apaiza deitu zuten konjuroa egiteko ta geatu zan.

Sapelatxak txitak eramaten zituan. Segá adar luze batean jarri zuten betik gora ta etzitian gaiago eramán.

Azkonarrari berriz, belazean tomate potoak ta ardi yoareak jarri ta alde zijoan.

(Felix Malkorra)

Axarientzat bakka izaten zan. Arekin akatzen ziran.

(Legasa'ko aitona)

Bizente Zubeldia Zaldibitarrak, orain 40 urte, 17 azari akatu zituan, emen errian, eta Uli'n (Legasa baserrira biltzen zan Orexa'ra etortzerakoan). Onen aita otsoak akatzen ibiltzen zan eta erritik ortarako deitzen zuten.

35/5.— (Kristina Atxega)

Olo txaboletan, pixtiak izutzeko ardi buru ezurra edo beiena edo txekorrena jartzen zuten txintxillik.

35/6.— (Eusebi Mintegi)

Beiak ume galtzen duanean, akerra sartzen da ikulluan; kutsu txarra beregana biltzen du.

(Jenara Gastesi)

Baratzean txoriak izutzeko, akatutako bela jarri.

35/7.— (Migel Atxega)

Eramua etxe ondoan bearrezkoa bait da; gauza askotarako ona ta usai onekoa.

(Kristina Atxega)

Itaia ta sega agan muturrean tximisten aurka ona.  
Lisibe edo lisiue egiteko iru gauza bear ziran, uda, surteko errautse ta erramua.

(Jenara Gastesi)

Aizkorak eta segak gora beida, tximista arat bildu dedin, ataira ekaitzetan ateratzen zituzten.

36/1. — (Jenara Gastesi)

Baratza, maiz, bear dan gauza egiteko.

(Kristina Atxega)

Baratza sukaldeko janarientzat bakarrik.

(Migel Atxega)

Larraine, gurdik eta tresnak baliatzeko izaten zan.  
Larraine, beste etxetan, atadie deitzen dute.

## JANARIA

37/1. — EGUNERO ARTZEN DITUGUN JAN-ALDIK

Goizean goiz, edari beron bat.  
Goiz erdi aldian, gosaria edo amarretakoa.  
Eguardian, bazkaria.  
Atsaldakoa.  
Gabean edo illunabarrean, afaria.

38/1. — 7'tan, goizekoa sukaldean zutik.

9'terdietan, amarretakoa sukaldean.  
1'tean, bazkaria, sukaldean. Belarren garaian, urruti izan ezke-  
ro, belarrean. Garoetan urruti izan ezker, mendian.  
Beroa egin ezker, mandioan bazkaltzen dute.  
6'terdietan, atsaldakoa, zutik sukaldean edo mendian edo belar-  
rretan ibilli ezker, an bertan.  
9'tan afaria, sukaldean eserita. Beroa egin ezker, mandioan.

39/1. — Otordurik garrantzitsuena, beti eguardikoa izaten da.

39/2. — Gaur eguneroko otorduetan jan gai auexek artzen dituzte:

Goizetik kafe utsa edo esnea berotuta.

Amarretakoan: arroltza bat urdaiazpikoakin edo txorixuakin edo urdaiarekin.

Bazkarian: zopa, ia beti, neguan. Udarren ensalada. Eltzeka babarruna edo lentejakin. Beti barazkiak; azelgak adibidez. Txerrikia bere garaian. Askotan ollaskua edo xerrak. Ondorean, ia beti, kafea.

Atsaldakoa: ogia ta gazta edo txokolatia.

Afarian: Porrusalda edo baratxuri zopa edo patatak. Ondorean patatakin egindako tortilla. Kafea edo kafesnea.

39/3. — LEN EGITEN ZIRAN OTORDUAK

(Paula Gibelalde)

Kafea edo kafesnea, goiz, sukaldean.

Gosaria, 8'tan sukaldean (sardin zarra edo taloa ta urdaie ta esnea edo gazta edo arroltzak).

Ammaretakoa laieko garaian egiten zan, kanpotarrak zeuden garaian, orduan sardin zarra danentzat.

Bazkaria: zopa aurrena, babarruna, babrrunetan egindako urdaie, gixadue ardikin egiña, gazta, ogia etxean egiña.

Iñularrekoan: ogia ta intxaurrak.

Aparie: urdaie, arroltzak, taloa ta esnea.

Festetan: ardikie ta egaztie.

Jaietan: alatxu; fideoa ta garbantzuk. Aragia ekartzen zan zopa egiteko. Aragi ura tomatearekin jartzen zan.

(Eusebi Mintegi)

Gosarie: 5'tan, talo ta esnea.

Eguardian: 1'tean, babarruna gorria ta sagarrak erreak taloakin.

Aparia: 7'terdietan, porrusalda ta gaztain errea (len gaiztain asko biltzen zan. Etxe guztietan 20 edo 25 gurdí).

(Jenara Gastesi)

Goizean itzulea joateko, kafea artu.

9'tan, gosaria edo amarretakoa: txorixu puskakin tortilla kanpora zijoaztenean; etxean, talo ta esnea.

12'tan bazkaria: babarrunak eta an egositako urdaie ta gaiñean gazta.

6'tan atsaldekoa, beti ez: gazta ta ogie edo intxaurreak.

Illunduta gero aparie: patata egosiak edo gaztañak, talo ta esnea. Beste batzuetan, azak txongoakin (urdaie azpiko ezurra).

40/1. — (Paula Gibelalde)

Eltzarie nola egiten dan: ura irakiten jarri, olioa baratxurikin erreta amaikak aldean bota, orduan patata batzuk ere jarri.

(Eusebi Mintegi)

Eltzarie: goizean babarrunak uretan jarri. Amaiketan olioa bota. Txerriak ildakoan, urdaie pixka bat babarrunetan sartu.

Porrusalda: ura jarri, iraki garaian, olio ta porru bota.

41/1. — Gaur igandetan beranduxeago bazkaltzen da. Erriko festetan berriz, jaten asterako ordu biak izaten dira.

Igandetan norbait etorri ezker, zopa aurretik, esparrago batzuek jartzen dizkiete, baita ensalada rusa. Zopa ondotik, baita konejua patatekin eta ondoren xerrak patata preji-tuekin.

42/1. — Beti, zopa, aurretik izaten da, ondoren eltzaria ta ondorean aragia.

Bukaeran kafea. Ensalada dagonean, beti aurretik dijoa. Sagarrak berriz bere garaian, erreta, aragiaren ondoren.

42/2. — (Jenara Gastesi)

Jateko esaerak:

«Orain, zer degu jateko? Zerzeta, burrunzti puntan erreta».

«Ori musu zikiña dezuna; zozoak beleari, ipur beltza».

«Zoazte zaldabaiak dirudijuela, adarrak atera arte».

43/1. — ZER EDARI?

(Eusebi Mintegi)

Toki askotan, len, ude edo pitarra. Noizik bein, ardoa.

(Jenara Gastesi)

Gaur ardoa ta sagardoa.

44/1. — BAZKALTZEKO TOKIAK

(Jenara Gastesi)

Bakoitxa toki jakiñetan jarrita.

(Eusebi Mintegi)

Danak mai batean. Gurasoak toki berdiñean. Emaztearen ondoan aur bakoitxak bere tokia.

(Paula Gibelalde)

Etxean zirala danak batean. Mai txiki batean umeak. Aita toki jakiñean. Ama, baita. Amona su ondotik ibiltzen zan. Ia beti semeak toki berdiña. Aitan ondoan umeak. Aman ondoan egokitzen zana.

45/1. — Gaur, bakoitxak, maiean, bere platera edo azpilla, xardea, xalia dauka, baita edontzia.

(Paula Gibelalde)

Len danak ganbela batetik jaten zuten.

(Eusebi Mintegi)

Fuente batetik, jaten zuten danak eskuekin artuta. Eltzetik, zurezko kutxareakin artzen zuten.

(Jenara Gastesi)

Emen, etxe ontan, bakoitxa beretikan jaten ezagutu nuen.

46/1. — Zopa ta eltzaria artzen duten guztietan kutxarea erabiltzen dute. Gaur metalezkoak dituzte etxe guztietan.

(Jenara Gastesi)

Malkorran, egurrezko kutxareak zituzten len; etxean eginda-koak.

(Paula Gibelalde)

Kutxarea len zurezkoa zan.

47/1. — Gaur erretako gai geienak eskuekin artuta jaten dituzte; xerrak, ollaskua, arraia, urdaia, gazta.

Salsakoak berriz tenedoreakin. Len xalxakoak kutxareakin; xalxik gabekoak eskuekin.



48/1. — Arroltzak nola jaten dituzten.

Gaur egosita, urian paseak, edo prejituta edo tortillan.

(Paula Gibelalde)

Prejituak, olioa edo urdaien koipeakin. Eltzean sartuta epelduta.

(Jenara Gastesi)

Len izerdituta sun aurrean; lurreko sun, brasa ondoan jarri ta busti egiten da. Buelta emanaz gogortu egiten zan.

Eltzean gogortuta ere bai. Olioari begiratu bear zitzaion.

48/2. — Arroltzak konserban gordetzeko, len karetan sartzen zituzten.

49/1. — OTORDUKO OTOITZAK

Bazkari ta apari garaian, etxe geienetan, jan aurretik, Purgatorio-riko animentzat Aita Gurea ta Salbea.

(Jenara Gastesi)

Aitona zarrak ala erakutsi zigun: «Guk geiena zor diogun Purgatorio'ko animen izenean AITAREN otordu guzitan».

(Larte'ko alaba batekin ezkondua dagon Antonio Badiola gizonari entzuna)

Amona Joxepaiñazik, Amezketa'ko Iparra baserrikoak egiten zuan bazkal aurreko otoitza.

«Aingeru Guardakoak, gaurda gaitzala, gabean ta egunean, janean ta edanean, ustekabeko deskalabro desgrazietatik: Aitagurea. Maria Santisima izenean: Salbea. Ondoren Kredo. Ta on egin digula lanean, siestatik egin ta lanea».

Bazkari aurreko otoitza zan.

50/1. — Len barau garaian egiten zana.

(Eusebi Mintegi)

Txokolatea bakarrik ogirik gabe goizean.

Eguardian beti bezela jan.

Gabean gaztañak.

(Paula Gibelalde)

Baraue egunetan: goizean kafesnea, eguardian eltzarie.

Gaur berriz: Esnea edo kafesnea goizean. Eguardian beti bezela. Gabean patatak edo baratxuri zopa esne katilluakin.

51/1. — Basurde garaian, baten bat botatzen dutenean, nola jaten dute?

Egun berean gibela jaten dute. Aste bat geroxeago, basurdea apaltzeko biltzen dira; zopa, basurde zatiak patatekin, gero basurde xerrak prejituta ta basurde saieskiak erreta. Basurdearen ondotik latako melokotoiak, kafeak, edari biziak.

Santu Guztien egunean len asko tripotxak erriko ostaturu jaten zituzten:

Aurrena tripozopa, gero txipotxak, gaiñetik ardi gixadue.

Erriko festetan berriz: arkumea errea ta mamia (errikoak).

Gaur oraindik txerri pestak irauten du, len bezelatsu.

(Paula Gibelalde)

Santiago egunean, aitazanaren egunean: salda, garbanzue, aragie edo egaztia.

Festetan edo atsolorretan: ollaskoe.

Bisita auzokoena: olloa izaten zan.

(Jenara Gastesi)

Txerripesta, Santakruz, Korpus egunean ta atsolorrean bestetan baiñan obeto jaten zan.

(Eusebi Mintegi)

Jaietan: aragia salda egiteko. Zopa egin ta aragia tomateakin. Eguarritan: ardi zarra, odolkiak eginta.

Erriko festetan: Olloa ta ardia. Gixadua egin. Garbanzue ta arroza. Ollu egosia fuentean oso osorik atera. An puska-tu. Gero arroza esneakin.

Korpus egunean, orain gutxi arte, danak biltzen ziran atsaldean ogia ta gazta jatera.

Arto txuriketa zanean: bukaeran sardin zarra izaten zan danentzat.

Atsolorrak: etxe guztietatik olloparea eramaten zuten ta bazkaltzeko, zopa, gixadue ta ollaskua erreta.

Txerripestan: goizean, iltzalle ta laguntzalleak gibela jaten dute. Atsaldean, emakumeak, odolkiak egiten dituzte ta aientzat: menbrilloa ta txokolatea. Aparie izaten da egitazko pesta: zopa, azak, odolkiak, txerri xerrak, pikoak, mandarinak, pazientxik, kafea ta edari bizik.

(Sinfarosa Iturralde)

Piparopille: Santageda egunean ta Korpus Oktaban izaten zan.

Neskek etxetan egiten zituzten. Etxez etxe mutillak billa ibiltzen ziran. Sofiuakin dantzatzen ziren. Saturnino Gastesi Erretorak galerazi zuan.

Nolakoak ziran: ogiriña udekin, arrautz gorringoa bota ta patar pixka bat ta azukrea. Oiek orratu, piper opillen forma eman eta labera. Besoak sartzeko añekoak. Gazteei piper opillek eta ardoa ematen zitzaizkien.

52/1. — Ogia gaur bi etxetan noizbeinka egiten dute, garian iriña erositara.

Len, orain dala ogei urte, etxe danetan etxeko gariakin egiten zuten.

(Paula Gibelalde)

Ogia orain sei urte arte egiten genuen. Ogi iriña bertakoa, errontan jo ta baijan pasa. Esaera zarrak ala dio: «Baiak iriña igo, errota eralki, kanibetak erreta, labeak ebaki».

(Felix Malkorra)

Orain dala 50 urte, asto gaiñean ekartzen zuten ogia, Lizarza ta Gaztelutik. Artutako ogien sifalea makil batean egiten zuten koxka. Gariakin ordaintzen zuten. Urte txarra zanean, txekor batekin.

53/1. — OGIA NOLA EGITEN ZAN

(Eusebi Mintegi)

Ankakin orea aztakatu, orremai gaiñean.

Labendaie=ogie sartzeko pala.

Peatia=brasa ateratzeko.

Erratza=labea garbitzeko.

(Paula Gibelalde)

Orromaie=orea egiteko maia.

Matarraskie=orromaia garbitzeko.

Labean pago egurra. Brasa egiten danean, atera ta agia ladrillo gaiñean egiten da.

Labeataka=labearen sarrera.

54/1. — LEGAMIE EDO ORRANTZA

(Paula Gibelalde)

Ogia labean sartzeko prestatzen zanean, puxka bat kendu ta ura iriña azpian gorde urrengo egunerako.

55/1. — (Eusebi Mintegi)

Ogia egiteko: iriña zabaldu, ura ta gatza bota ta orrantza nastu eskukin eta anekin zapaldu. Mandirekin bildu ta gero mantakin.

(Paula Gibelalde)

Iriñe, ure ta gatza, ogia egiten asteko bear dira. Masak bi ordu bear ditu jeikitzen edo arrotzen. Labea prestatu. Ogie zabaldu maietan; bi kilokoak bere figure eman. Eskekin antza ematen zaio. Gero sartu labean kolorea emateko. Labearen atakan su pixko bat garrekin; garre kolorea emateko.

Otasa ogie, zaiekin egindakoa.

56/1. — (Paula Gibelalde)

Ogia borobilla, labanakin erditik ebakia izaten da; bi kilokoa.

(Eusebi Mintegi)

Iru kilokoak ere izaten ziran; sei libra, borobilla.

57/1. — (Paula Gibelalde)

Gose galanta izan zan garai artan, gerra ondorean, iriñari, patata egosia nasten zitzaion. Masa arekin ogia egiten zan.

58/1. — (Paula Gibelalde)

Gari iriña gutxi zanean, orduan garagarra pixka bat nastutzen zitzaion.

59/1. — Artoakin egindako ogia.

(Paula Gibelalde)

Orrea egin eta erre labean; artoa labean errea, urakin bakarrik.

(Jenara Gastesi)

Supeko artoa, beste taloa bezela egin: lodin utzi.

Azpitik ondo berotutako txapa ta gaiñetik brasa. Bi aza osto tartean.

60/1. — (Paula Gibelalde)

Orepilla egin; pixka bat itxoin, zabaldu ta talo burnin erre. Talo mantenun zutik jartzen ziran.

(Eusebi Mintegi)

Taloea egiteko, masa egin ta zabaldu talo burnin.

60/2. — Lengo garaietan, batean artutako arto ta esnari *Morokilla* deitzen zitzaion.

Esaera zarra ba zegoen: «Gure diru ondarrak, oraintxe xikili xikulu, arto ta zopa».

61/1. — TXERRILTZEA

Urtero etxe guztietan, txerri aundi bat edo bi txiki iltzen dira, San Martin'etik asita Garizuma bitartean.

Oloak zartzen diranean iltzen dituzte. Konejoak igande askotan. Ardi zarra noizbeinka.

Esaera zarrak ala dio, Robustiano Arrillagak esana: «Txerrie iltako astea ta ezkontutako urtea obenak».

Gaur txerria iltzerakoan, gantxua burnizkoa kokotxa azpitik sartzen diote, orduan txerriak atzeraka egiten du. Orduantxe gizonak eltzen dute. Mai gaiñean jarri ta gantxoa iltzailleak izarrari erasten dio. Gero labana sartu. Odola bildu. Ta gero bi olen gañera bota ta erre.

(Eusebi Mintegi)

Laien eta garitan ibiltzen ziran gizonen emateko, iltzen zan ardie.

(Paula Gibelalde)

Txerriak, San Martiñetik otsailla bitartean bat edo bi iltzen dira. Ardia berriz: Santakruzetan, Amabirjiña egunean. Eguarritan. Erriko festetan.

Arkumea: Erriko festetan, Pazko egunean.

Oloak: Santakruzetan, Atsolorretan.

Len konejuak etziran izaten.

Len txerria iltzeko etzan gantxorik izaten. Borroka egin ta muturra lotu bear zitzaion. Artuta maiean jarri amar gizonen artean. Orduan labana sartu ta odola atera; trapue koxkakin zuloan sartu. Lastoakin erre. Orain butanoakin erretzen dute. Garbitu berriz, ur beroakin. Gero iriki.

Ardiak iltzeko: Labana lepotik sartuta, tubo batekin aizea sartu, puztu, larrua kentzeko. Tripek atera.

Oloa iltzeko, belaunetan sartu ta txintxurretik lepoa ebaki. Ur beroan lumatu.

62/1. — NOLAKO TXORIXUAK ERRIAN?

(Jenara Gastesi)

Txorixu onak giarra onakin egiten dira ta besteak birikekin.

Txerri estetean, txerriaren odolarekin berriz odolkiak.

(Eusebi Mintegi)

Txorixuak egiteko, txikitu giarra ta salmuera eman (baratxuria ta gatzakin).

Beste txorixuak egiteko, biotza ta burue nastutzen zan txorixue bezela, beraxka beraxka gelditzen zen.

(Paula Gibelalde)

Txerriekin gauza asko egiten dira.

Okena txorixuak: txerrien aragia txikitu, labana ta makinakin. Gatza ta baratxuriakin salmuerakin jarri. Bi egunez buelta emanaz euki. Gero piper gorria nastu ta estetean sartu. Txintxillik jarri.

Birikak: txerri birikekin ta urdai pixka bat; txorixua bezela gero. Odolkiak: Tipula, porrue txikitu, piparra ta perrejilla nastu. Txerrien gizengarrik, manteka odolakin danak nastu. Aiek estetean sartu ta gero egosi. Ziritan sartu ta txintxillik jarri.

Ardien txipotxak: Tipula, porrue, perrejille su gaiñean jarri ta bigundu. Gatza eman, arrolta nastu. Ardin sebo ta baresa nastu. Arei arrolta asko nastu ta pertzen egosi kontuz. Aiek bero beroak jan.

Ardien odolkiak txerrienak bezela egiten dira.

63/1. — NORI EMAN TXERRI PUSKEK?

(Paula Gibelalde)

Apaizei, aidei ta auzoai, txerrien puskek ematen dira.

Ardiena; bertakoai probatzeko.

Txerri muñak geienean izaten dira: odolki ta bizkar ezurra.

(Eusebi Mintegi)

Baita praktikanteari ta maestrari ematen zaizkie txerri puskek.

(Jenara Gastesi)

Ardi puskak, auzokoai, mesede bat egindakoai ematen zaie.

64/1.— TXORIXUAK NOLA GORDE?

(Paula Gibelalde)

Len txorixua, paperan bildu, gero trapuan ta gari aletartean sartzen zan.

Besteak, izaretan bilduta txintxilik jartzen zuten.

Orain dala 30 urte ezkeru, olio gordiñetan.

(Jenara Gastesi)

Len garitan banaka gordetzen ziran txorixuak. Azala lizuntzen zitzaien.

Orain etxe batzuetan neronek erakutsi diet nola egin: legortu ondorean, txorixuak prejitu gorritu arte. Gero prejitutako olioan sartu; askoz ez obeto gelditzen dira orrela.

65/1.— Len erri ontan, gaztak bakarrik ketzen ziren; orain ezerrez.

66/1.— ZE IGALIAK GORDETZEN DIRA ETZETAN?

(Paula Gibelalde)

Orain sagarrak ganbaran; errexil ta geza sagarrak.

Baita intxaurrek eta urrak.

Len baita gaztañak, molkoakin, gañerakoan usteltzen ziran.

67/1.— (Jenara Gastesi)

Erri ontan biltzen diran perretxikuk auexek dira: Gibelurdiñak, xixa orik, kuletroa, onto beltza, onto zuri, udaberriko xixek.

68/1.— Karakolak len etziran jaten.

Orain gutxi dala etxe batzuetan asi dira. Bilduta zaku batzuetan eukitzen dituzte. Gero ozpiñakin mukiya kentzen dizkie. Egosi. Txorixu, piparra, tomateakin eta beste gauza batzuekin jarri.

70/1.— Beko errekan noizbeinka amurraiak arrapatzen dituzte eskua-kin; baita zentralako presa garbitzerakoan. Prejituta jaten dituzte.

Errekan dauden arraiak, amurraia, barguk ta kangrejuk dira.

71/1.— Gaztak egiten al dituzte?

Beiena ta ardina len asko ta orain gutxi. Gaur beiena ia iñun. Ardina berriz etxe batean.

(Paula Gibelalde)

Ardina ta beiena lau gasna egiten ziran gure etxean len egu-nero. Bei gasna saltzen zan. Ardina ohea zalako, etxerako zan; etzan saltzen.

(Jenara Gastesi)

Pitxarrako gasta edo txarroko gasta etxe batean egiten dute. Gasta usteldua dana, osorik txikitu. Gero leorra ba da, esne tanto batzuk, anixe edo kofñaka pixko bat arrak galtzeko bota. Pikante gutxi daukala uste ezkeru, ozpiña tanto batzuek ixuri. Egunero nastu zurezko makilla batekin. Jaso- tzeke balio du.

72/1.— Nola esnea gaztu?

Gatzariakin len. Orain egosita.

(Paula Gibelalde)

Arkumea il gaztea, illabete batekoa, maskuria jaso. Ta ura iza- ten zan gatzarie

73/1.— Gazta nola egin?

(Paula Gibelalde)

Maskurie esnari nastu ta esnea artzen du. Gatzaria puxka bat urean urtu ta zapi zurian pasa ur ura ta ur ura esnari nas- tu. Gatza eman mamia artzen duanean, nastu, mamia asen- tatu. Labanakin puxketak ebaki ta gazta ontzin bota ta pix- kanaka eskuz estutu. Azala egiteko ur beroakin pixkanaka botiaz azala egin. Ortarako gatzontzie bear zan eta gazta jarizeko zumitze.

(Eusebi Mintegi)

Ardia edo beia jetzi ta berealaxe gatzarie esnari eman. Ma- mia nastu. Esnea zapaldu.

74/1.— (Paula Gibelalde)

Gaztak egin ondorean, egun pare batean, arasan, gero ol baten gañean jartzen ziran. Gerezi ezpala ekartzen zan ta sua

egin. Karneo, izeneko armario batean gaztak jartzen ziran; sare bat zeukan. Ondo zakuekin inguratuta zeukaten, kea sar zedin. Lendabizi gerezi ezpala, gero altzarena sartzen zuten.

(Eusebi Mintegi)

Armarioan, txintxillik jarri ketuta, kekin gorrituta; gerezi azala ekarri, pertza aundi batean jarri. Gazta karneoan, apaletan.

75/1.—Gazura zertarako?

(Paula Gibelalde)

Gazura egosi, ontzi batekin goitik botata loditu egiten da. Buel-taka ibilli ta gero edan. Lengo gauza da ori, orain ez da geiago egiten.

(Eusebi Mintegi)

Gazura maiatzean oso ona izaten da. Gazura nastuta lodi lodi jartzen zan. ta ura edaten genuen.

76/1.—Mamia nola egin?

(Eusebi Mintegi)

Mamia egiteko, esnea egosi ta oztu. Oztu ondorean gatzaria eman.

(Paula Gibelalde)

Ardiak jetzi ta bereala egosi ta epeltzen danean gatzaria, azukrea kanelakin nastu.

77/1.—Esnea zertarako?

(Jenara Gastesi)

Len esne gutxi izaten zan. Etxerako ere larri ibiltzen giñan.

(Paula Gibelalde)

Etzan batere saltzen len. Etxerako; txekorrak azitzeko ta gazta egiteko zan. 1943 urtean asi ziran saltzen ta esnezalea etortzen.

(Jose Arana)

Esnea asko zegoenean, astoakin Tolosa'ra saltzera joaten giñan. Askotan dena saldu gabe, berriz esneakin etxera etorri bear.

Gaur, Gurelesa izeneko koperatibaren kide geienak dira. Esnea egiten dute ta Gurelesa'ri saltzen diote. Goizean esnezalea zazpitan billa datorkie. Amabost etxetik, amabik ematen diote esnea esnezaleari. Beste bi etxetan txekorrak bakarrik azitzen dituzte.

78/1.—Eusebi Mintegi)

Esnea minduta zegoenean txerriei botatzen genien.

Esnegeiñakin mantekilla noizbeinka bakarrik egiten zan.

79/1.—Astoesnea, len erremedioetarako izaten zan; Tifus zeukateneztat sendatzeko.

80/1.—Gaurko barazkiak auexek dira: baina, aza, porru, tipula, baraturrie, babaundie, tomatea, perrejilla, illarra, zanorie, letxuk...

(Paula Gibelalde)

Barazkiak egosita jateko: ura irakiten dunean, baina sartu, pixka bat egosten danean patatak bota, orduan olio ta gatza; gaiñetik olio errea baratxuriakin eman.

81/1.—Kafea ia egunero artzen da bazkari ondorean. Manzanilla berriz tripak nastuak daudenean.

(Eusebi Mintegi)

Tea ta arbolaren ostoa Legasa'ko Migelek ibiltzen zituan.

(Paula Gibelalde)

Lurrezko eltzean kafea egitea, ohea, barrenean legune daukalako.

Manzanilla tripako miña zutenean.

82/1.—(Jenara Gastesi)

Len anixeta, txerria iltzerakoan artzen zan bakarrik.

(Paula Gibelalde)

Ardoa aitak egunero artzen zuan, bestek ez.

Sagardoa beti artzen zan.

Noiz beinka, Uxuala, matsan zuztarrakin egiten zana, garratza.

(Eusebi Mintegi)

Len aguardiente zurie ta patar zurie izaten zan.

- 83/1.— Beti ezagutu da erri ontan sagardoa egiten.  
Gaur oraindik, amabost etxetik, amar etxetan egiten dute.  
Sagardoa bi urtetik bein egiten da, sagarra nola etortzen dan.  
Iru tolare daude errian.  
Tolare zarrenetako baten aztarnak, Txuñeko ganbaran daude.  
Egur bat zulo batzuekin, prensarenak, luzean 4,50, gora 0,30,  
zabalean 0,46; iru txulo, diametro 0,25, altura 0,40, roskakin.
- 84/1.— Zigarroa erretzen, gaur amalau urtetik ixilka asten dira.  
Emezortzi urtetik aitaren aurrean, batzuek amasei urtekin.
- (Paula Gibelalde)
- Len soldaduskatik etorrita iru urte geroagotik, beldurrez aitan  
aurrean.
- (Jenara Gastesi)
- Soldaduska ondotik aitan aurrean. 13 edo 14 urtekin izkutuan  
asi. Ori len.
- 85/1.— (Paula Gibelalde)
- Len lizar ostoa edo aritz ostoa erretzen zan. Aiena ere bai.  
Aiena moztu, zulatua barrena izaten du ta andik kea atez-  
ratzen zaio.  
Toxa, tabakoa eramateko ibiltzen zan.
- (Jenara Gastesi)
- Aiena eta txurikiñekin (bizarrarekin) egiten zan tabakoa.  
Toxan tabakoa eramaten zuten, punten lotue.  
Lengo aitonak zigarrua pixtutzeko, garotara zijoaztanean ardaia  
suakin eukitzen zuten bazter batean.  
Gaur danak «Ducados» izeneko tabakoa erretzen dute ta bazkari  
aundi xamarretan puruak «Farias» izenekoak. Larunbata ba-  
tzueta meza ordorean ere bai.  
Zigarroari sua emateko, poxpoluak edo txiskeruak dituzte. Len  
pixtarria, zurdakin izaten zuten.
- 86/1.— Janaria gertutzeko, bazkari danetan, olio erabiltzen dute.  
Barazkiak, ia etxe geienetan egunero jaten dituzte; gero ta  
geiago.  
Ogizaleak, Tolosa'tik egunero etxe bakoitxara ogie ekartzen die.  
Larunbatero; aragizalea, aragiakin igotzen da.

- Ensaladak maiz jaten dituzte.  
Txanpaña ere jai aundietan artzen dute.  
Igandero berriz edari biziak.  
Len urdaia asko jaten zan; baita eltzarie ta gaztañak. Aspaldiko  
garaietan gazure asko artzen zuten eta ardo gutxi.
- 87/1.— Sukaldetan gaur labe berri onak dituzte. Sua butanoakin ere  
egiten dute.  
Izokutxekin noiz nai aragi ona jan dezakete, baita tomate gor-  
diña ere.  
Garbikutxarekin, emakumeak asko aurreratu dute; lengo lanak,  
errota garbitzek bukatu ziran.  
Sukalde danetan irrati tresnak dituzte ta bazkaltzen dutela eus-  
keraz irratia entzuten egoten dira edo bazkaltzen dute.  
Bi etxetan telebista jarri berria daukate.  
Ura, etxe barrenean, ia baserri danetan daukate jarria; amabost  
etxetik, amairuan.  
Argi ederra orain dala bi urte ezkerotik jarria dago.  
Gaur len baiño askoz lasaiago bizi dira; erosotasun aundiak  
etxean dituztela.

## JANTZIA

- 88/1.— Gaur, erri ontan, beste erri guztietan bezela jaten dira. Antzi-  
ñako jantzi berexiak ez dituzte jaten.
- (Migel Atxega)
- Len Alkatea ta Ayuntamentukoak, kapa ta sonbreroakin joaten  
ziran mezetara.  
Alkatea igandero meza nagusira bere kapa ta sonbreroarekin  
joaten zan.  
Kapa ta sonbreroarekin ezkontzen ziran etxe aldekoak.  
Diktadura garaian utzi zituzten.
- (Felix Malkorra)
- Ezkundu, kapa ta sonbreruarekin egiten ziran etxealdekoak.  
Illean bein, irugarren igandean, Binebra'ko funziara, Jaunakin  
batean, zimitorioan bueltan, meza nagusi ondoan, ibiltzen  
giñan.

*(Eusebi Mintegi)*

Andreak, gona gorria txokotillano eramaten zuten len; txaketa, mantala ta pañelua. Igandetan soñeko beltza jazten zuten. Len ezkontzeko, etxealdekoak, astoa artu, Tolosa'n utzi, tren artu ta Donosti'n Ponsol'en etxean erosten zuten kopazko sonbreroa. Urrengo egunean, arekin joaten ziran ezkontzera. Orduko sonbreruak, kutxan gordeta, lau etxetan dauz-kate: Legasa, Larte, Matxiñe, Alziturrieta.

89/1. — Barrengo jantziak.

*(Eusebi Mintegi)*

Len emakumeak, atorre goitik beraño, besoluzekin, arizkia, eueiak egiña. Atorren gañetik gorontzak. Gorontzak, gerrin, sokakin lotzen ziranak.

90/1. — *(Eusebi Mintegi)*

Gañetik, emakumeak, gona gorri pintoa zuten; aren txaketa txanbra zan.

Gizonezkoak berriz, galtzak, forrukin barrendik. Alkandora lueza ta txamarra urdiñe; danak eulezkoak.

90/2. — Lana egiteko jantziak gaur.

*Gizonak:* abarkak, galtza zarrak, alkandora zarra ta txamarra zar bat.

Galtza zarrak, urdiñak; ausiak badira, puska aundi batzuekin estaliak ibiltzen dituzte ARABAKIE izena dutenak.

Euri pixar bat egiten dula, zaku bat buruan artuta ibiltzen dira lanean.

Egualdi txarrarekin, ganadu janetan edo arbitan, urjantziak plastikozkoak jazten dituzte.

Buru gañean, berriz, beti txapel beltza.

*Andreak:* abarkak, gona zar bat, zapi bat buruan, mantalakin baratzean.

Gabardina zarrakin euria egin ezker.

Gizonak dituzten lanerako jantzien margoa urdiña izaten da.

Emakumen jantzien margoa era askotakoa da.

91/1. — *(Eusebi Mintegi)*

Etxean len, gona ta txanbrak ta atorrak, liñoakin egiten ziran; oiala egiteko ariakin. Aria etxetan egiten zan. Ardilleakin berriz galtzerdiak.

91/2. — *(Migel Atxega)*

Eune, arizko oiala izaten zan.

Lenengo azia egiten zan. Allorbea baiño tipiagoa da. Udaberrin etortzen zan. Eldutzen danean, bildu eskuakin, azia kendu.

Azia kentzeko tresna, kamarra da. Sortetan jarri, Putzun sartu, ogei egun.

Liña putzuan beratuta, atera, ekarri ta zabaldu.

Legortzen zanean, mazoakin jo. Liñarria, jotzeko tokia zan.

Urrena garbatu garban (betik gora iru oja ditu, goitik bera bi); or bigundu.

Suatzan zanpatu ta tiratu bigundu arte. Gero txarrantxatu.

Biguñena «Amokoa» izena duna, fiñena liñarin jartzen dana.

Zakarrena mulloa, onekin aria zakarragoa egiten da.

Gero ardatza egin edo aria egin.

Ardatza, aria biurritzeko da. Gero aritik matezatu. Aria bildu.

Mataza gelditzen da. Gero, lisun, mataza garbitu. Mataza-tik rollora pasatzeko «Arikaien» sartu. Arikaie, kaja bat erditik gora makil bat zuan; onek zurezko bi gurutze apal, erdiz-erdi (bat beran eta bestea goien) iraganduak, zeduzkan, eta lau esola goiko gurutz-buruetatik beekoetara,, guztia erdiko makillan ingurubiratzen zana.

Etzex etxe, ibiltzen ziran emakumeak lan auek egiten.

Eunpieza edo tela egiteko, zakun artuta eulengana joaten ziran.

Oietakoak etxean gelditzen diranak: mandire ta oazala, atorra ere bai (Azpiko arropa, atorra zan).

91/3. — Gaur jazteko ez da ezertxore etxean egiten; jersey ta ardillezko galtzerdiak baizik, etxe batzuetan.

92/1. — Gaur, gerrikoa, iarruzkoa eramaten dute gizon guztik; bi zarrak, telazkoak.

*(Migel Atxega)*

Len gerrikoak eta tiranteak eramaten zituzten gizonak.

*(Eusebi Mintegi)*

Gerrikoa telazkoa zan eta litxek txintxillik.

93/1. — *(Eusebi Mintegi)*

Aurrak, mantalakin ibiltzen ziran ta atorrarekin; 8 urte arte ez galtzik beintzat.

Gaur neska mutillak, txikitik galtzekin ibiltzen dira, geienetan luzeak gañera.


94/1.— Ze oñetakoak?

(Eusebi Mintegi)

Abarkak beien larrukin egindakoak ziran; aitonak egiten zituen. Abarkak listekin josiak izaten ziran. Apretak edo esparziñak, igandetan kabarrak jazen genituen.

(Felix Malkorra)

Anka utsean elizera joaten giñan ta ondoan alpargatak jantzi.



(Migel Atxega)

Ganadu larrue ekartzan zan, pusketa bat. Erdian ebaki ta beratu uretan. Buru aldetik, zabalagoa ebaki. Punzoiakin zulatu. Berari kendutako zerrendari, joskualekin josten zan. Bakoitxak beretzat berdin. Gero lokarriak jarri.

Jauna artzeko, alpargata zurikin joaten giñan. Ormaetxeko karrerean aldatzen zituzten. Gañerakoan larruzko abarkekin beti.

Gaur berriz, etxean geienean abarkekin ibiltzen dira danak. Egunero eskolara, aurrak abarkekin joaten dira. Igandetan mezara oñetako onakin etortzen dira danak. Mendira joateko batzuek oñetako lodiak eramaten dituzte.

95/1.— (Eusebi Mintegi)

Azpeiti'n egindako ezparziñak, erosten genituen. Batzuek ere zaku puskak edo mantarrak jazen zituzten.

96/1.— Nola orrazten?

Gaur emakumeak, batzuek permanentea, besteak ille motzarekin eta besteak luzearekin. Gizonak berriz, ille motzarekin eta orain gazte batzuek ille luzearekin.

(Eusebi Mintegi)

Len andreak, txikorda, mototsa egiteko trenza eramaten zuten Gizonak berriz, ille motza ta aurrean kopeta gañean mototsa.

(Felix Malkorra)

Emakume ezkondukoak, moñuakin ibiltzen ziran; gazteak ere bai, gero illea mozten zuten. Emakumeak illean, peinetak eta orkillak, sardez bezela, ortza okerrakin jartzen zituzten.

97/1.— Gaur ezkondugabe ta ezkonduen artean ez dago ezberdintasun aundirik.

Gazteak arroago jazen dirala; margoak biziagoak.

Ezkonduak, egun aundietarako dituzten jantzi onak, illunagoak dirala. Gaztenak berriz biziagoak.

Ezkondu batzuek egun bakan batzuetan korbata ere jazen dute; ezkontzetarako adibidez edo bataioetarako. Gazteak berdin.

98/1.— Emakumeak eramaten dituzten bitxiak.

Gaur, geienak, erraztunak eta eskumuturrean ordukaria, al ba dute, urrezkoa.

Gazteak berriz, geienak, eskumuturrean ordukaria ta batzuek urrezkoa.

(Felix Malkorra)

Len, lepoan kollareak andreak. Belarritakoak beti.

Baita errastunak ere.

99/1.— Bitxien sorginkerietaz ez dute sifnesten gaur.

100/1.— Len medallak metalezkoak arikin eramaten zituzten lepotik txin-txillik. Gaur askok dituzte zillar edo urrezkoak.



101/1. — Kutuñek.

(Eusebi Mintegi)

Kutuñek: barruan figure bat ta papera, tapa bezela. Figure, lore edo biotza izaten zan. Iru edo lau urteko umei jartzen zieten.

Gaur ez da olakorik ezagutzen.

102/1. — Makilla.

Aitonak edo artzaiak mendira joateko eramaten dute; gaur oso soilla.

(Eusebi Mintegi)

Len askuko makilla, perira edo mendira joateko izaten zan. Artzaiak, makilla ta punten ubela; ubela, beien larruakin egiña.

103/1. — Usai ona erropari emateko.

(Eusebi Mintegi)

Erramu ostoa eta menda beltza zan lenago. Orain ez da olakorik.

(Migel Atxega)

Menta beltza ta Erremeroa (romero).

104/1. — Oiako tresnak zerekin?

(Eusebi Mintegi)

Lastaia, zorroakin, gaiñean koltxoia ardilleakin, mandireak euleakin.

Azkenean, gaiñ gaiñean, oazala, koltxoia baiño meagoa.

(Migel Atxega)

Artzaiak berria, garo zimela pixka bat bota azpin, orren gaiñean koltxoia ardilleakin.

Etzetan berriz, lastaia ta aren gaiñean koltxoia.

Gaur etxe geienetan, azpian jergoia, gaiñean ardillezko koltxoia ta mandireak, estalkiak ta oiazala. Etxe batzuetan, ba dauzkate, koltxoi Flex.

## SENDIA

105/1. — Sendiari, Familie deitzen dute erri ontan.

Senideak, anai arrebak dira; etxeko azi aldi bat.

Aideak, lengusu ta pariente danak dira.

Aidearen berdintsua, tartekoa, kidekoa da.

Guraso zarrei, aite jaune ta amandrea izenekin deitzen dituzte.

106/1. — Aidetasunaren izenak, auxek dira: Aitona, aita, aitona illoba. Amona, alaba, illoba. Aitarreba, errañe. Amarreba, suye.

Ezkontza, neskatxaren errian egiten da.

Padrinoak: emaztearen aita ta senarraren ama dira.

(Felix Malkorra)

Bi eguneko ezkontza izaten zan lenago. Osabak eta lengusuak ere deitzen zituzten.

.....

Illetan, aita edo ama illezkero, semea edo erraña agertzen da buru bezela elizan.

Illetara, len, errikoak bakarrik etortzen ziran. Bederatzi urreneko mezara, kide danak biltzen ziran.

(Felix Malkorra)

Entierrora bertako jendea etortzen zan.

Bederatzi urrenean, orduan aide ta senideak. Danei bazkarie jartzen zien.

.....

Bataiora, ezkontzaren padrinoak izaten ziran deituak lenengoak. Bigarren aldan beste aitona amonak. Urrena anai zarrena saillean.

(Felix Malkorra)

Bataiora, senidekoai ta erriko aidei deitzen zaie.

.....

Dolugaraia; len, gaur bezela, urte bete, etxekoentzat. Urte baten buruan, urte mugako meza ta dana bukatua.

## ABIZENAK

- 107/1. — Abizenak len, etxen izenak; eliz liburuetan agertzen diran bezela.  
*Izenak:* Len, aita ta amaopntenak izaten ziren.  
 Gero erertore zarrak jaiotako eguneko izenak ematen zien jaiotze berrii.  
 Ondorean, geienak bazter guztietan entzuten direnak.  
 Gaur berriz, euskal izenak: azkena, Aitor.
- 107/2. — Nola deitzen dituzten erroko gizasemeak?  
 Baserriko izena aurretik eta ondotik bataio-ponteko izena, adibidez: Matxiñe'ko Jose edo Iriarte'ko Roxario.  
 Izengoitiak, gaur ez dituzte geiago erabiltzen.
- 108/1. — *Alkarrekin nola mintzatzen diran?*  
 Aitak, seme zarranarekin, zuka.  
 Aitak, etxeko billobei, zuka.  
 Aitak, seme gazte, ika.  
 Aitak, seme gaztenari, zuka.  
 Semeak, gurasoei, beorri.  
 Amak, alabei, ika.  
 Aitak, errañari, zuka.  
 Osaba illoben artean, zuka.  
 Anaien artean, ika.  
 Senar emaztearen artean, zuka.  
 Aitona aurrekin, zuka.  
 Aurra aitonari, beorri.  
 Aita gaztea, bere seme zarranarekin, ika.  
 Ama gaztea, bere alaba zarranarekin, ika.
- 109/1. — Etxeko aintziñako illen alde, mezak ateratzen dituzte ta ortarako Parrokian Kofradia dago. Or dirua urtean bein ordainduaz, illen alde bizpairu meza ateratzen dira.
- 109/2. — Illen alde egiten dituzten otoitzak etxetan?  
 Egunero, bi Aitagure jan aurretik, esaten dituzte.

(Eusebi Mintegi)

- Len, kiloko ogia maisterrak eta bikoa etxealdekoak, amalau illabeten, igandero eramaten zuten, Ofrenda garaian, meza nagusian.
- Inazio Galdos Apaiza jaunak, maisterrak eta besteak berdin jarri zituan; jaiero amar pezeta, duroa jai erditan, ofrenda garaian, ematen zituztela.
- Lengo zarrak, opilla eramaten zuten.  
 Oitura ori, orain galdu berria da.
- 109/3. — Errian diote: aspaldi, Altiturrieta baserrikoak, iru semealabentzat Mikelene, Paskualene ta Juandabarrene baserriak egin edo altxa zituztela.
- 110/1. — Etxe danetan, norbait gaizki jarri edo erori ezker, bisita egiteko oitura dago. Ezin dira esku utsik agertu; bisitakin etortzen dira. Bisita, ogei duro ta libra txokolate edo ardo kinatua izaten da.  
 Senidetarteko bateri, norbaitek gaiztakerin bat egin ezker, senideak biltzen dira laguntzeko.  
 Bengantzik aundiena, emen, ardiak baitzea izaten da: etsaien ardiak nunbait sartzen dirala salatzea.
- 110/2. — Emen errian, senidekoekin zerbait izan ezker, bertako jua-  
 rengana joaten dira.
- 111/1. — Ezkon berrik, etxean jartzen diranean, senide askok alde egiten dute.  
 Gurasoak il ondorean, etxe batzuetan, senideak bizitzen jarraitzen dute ezkondu arte.  
 Beste etxetan, guraso zarrak naiz illak izan, osaba izeba mutilzar eta neskazariak illobekin bizi dira (etxera ezkondu-takoekin).
- 111/2. — Etxe batzuetan, mutil zarrak gelditzen dira lanaren truke. Gaxorik jartzen dirala, jantziak ta gaxotasunak etxearen gain.  
 Osaba zarra batzuek, beren jaiotzetara biltzen dira, etxearen alde testamentua egina.
- 112/1. — Beren etxetara, gaur oraindik, erroko festetan biltzen dira, senide guztiak, urtero  
 Baita ere, illetan, jaiotzetan, ezkontzetan.

Erriko jaietarako, senaremazteak deitzen dituzte etxetik alde dauden senideak. Geienetan emakumearen lana izaten da ori. Ezkontzetarako ta bataioetan berdin egiten dute. Illetan berriz, auzokoak deitzen dituzte. Gabonetan, bakarrik ezkongabeak etortzen zaizkie. Jaiotetxera joaterakoan, emakumeak kafea edo txokolatea ekartzen dute; beti zeozer ekarri bear da. Familie izaterakoan berriz, len esan degun bezela, bisita.

(Felix Malkorra)

Norbait iltzen zanean, aideak, auzoak bear zituan deitu; etxeko jatea ta ganadu mantenu eman ere. Eztaietara etortzen ziranak len, gizonezkoak eun pezeta ematen zuten; orain milla. Andreak berriz, estalkiak edo mantak. Illetan bazkarie zuten danak eta meza bat izaten zan.

(Felix Malkorra)

Atsolarra, bixitekin izaten zan; txokolatia, espojak, boladua, kanpokoentzat. Bertakoak, olloa, libra txokolate, libra galleta ta ardo goxoa ekartzen zuten.

112/2. — Etxe batzuetakoak egun jakinietan etortzen dira bakarrik; gutxi gora bera orain arte esandakoetan. Bertze batzuek berriz, al duten guztietan biltzen dira. Noiz nai artaldea bezela bizi dira; Mordoan egon bear, nai ta naiez.

113/1. — (Migel Atxega)

Gaur, len bezela, gurasoak agintzen dute semeak erremeditu arte edo ezkondu bitartean. Len 25 urte arte gurasoen mende bizi ziran, gaur 21 urte arte. Ezkonduetakoekin, gurasoek ez dute agintzarik, ez semeakin, ezta errañarekin ere. Begiramen aundia izaten da, aiton amonarentzat edo osaba izebentzat.

(Eusebi Mintegi)

Zarrentzat, etxe sarbide edo konfiantza aundia izaten da; erreparo pixka bat. Egun txarra dala, etxean euki lanera atera gabe. Lana errexenak egiten utzi.

114/1. — (Migel Atxega)

Dotea, senide bateri ematen ba zaio, etxean gero gelditzeko sarzerik ez dago. Alkarrekin ententitu bearko dute.

Parrokiko Kofradian, senide guztien alde ordaintzen dute etxe batzuetan, len danetan. Orain gutxi ezkerro, etxean bizi diran alde, bakarrik, etxe geienetan.

Aur txikientzat, tutoreak izendatzen dira.

115/1. — Senidetartean alkar laguntza?

Biotzak erakusten du ongi naia: Paskualengo baserrian, aita alproja xamarra izaki ta semea konturatu ta Ameriketara joan zan. Amar urte buru, maixuari idatzi zion esanaz, «esateko etxeko zorrak zenbat ziran». Ta danak ordaindu zituan.

116/1. — (Migel Atxega)

Bere gurasoak jarri zioten, gurasoen baimenik gabe, terrenoak ez saltzea ta dirurik terrenoaren gain ez ateratzea.

Etxekoa gelditzen da, etxeko ondasun guztiekin, martxa guztia ar dezan. Geienetan edo ia beti, ondasun guztiak senar emaztearenak direla jartzen dituzte. Senarrak, emaztearen baimenik gabe ezin du ezertxore saldu.

Lermak (mermak) eta mejorak biyontzat dira.

Etxea edo etxe alde saltzea oso gaizki ikusia dago. Aditzeak ere ez du onik egiten.

117/1. — Norbait etxerako gelditu bear dunean, kontratua etxe geienetan egiten da.

Morroiak, len, geienak, oso ondo artuak izaten ziran. Beste batzuei janari gutxiegi ematen zietela, diote, gaur.

Gañerakoan, senideak bezela artuak izaten ziran. Danekin batean otorduak artzen zituzten.

118/1. — (Eusebi Mintegi)

Etxean ezkondu, batek jarri bear duanean, kontratua egiten da. Tasazioa egin eta andik kalkulatzten dute.

Etxea artzen duanak, martxa dana eraman bear du. Notarioak jartzen ditu gauzak. Etxerako gelditzen danak, besteai eman bear die izendatua (dirua). Berea artu ezkerro, ez dauka eskubiderik etxean.

(Felix Malkorra)

Etxean norbait gelditzerakoan, kontratua notarion aurrean egin

bear izaten da. Mayorazkoak erdia eramaten du. Gurasoak ortarako konpontzen dira. Beste erdia, beste seniden artean banatzen da. Etxekoak geiago du; zarrak eta gaxoak jaso bear izaten ditulako. Orregatik etxeari tokazioa eman bearra dago. Zarpatea beti jarria dago. Zarrak ezer gabe uzterik ezin da.

Aita bizi dan arte, semeak etxea saltzerik ez dauka. Gero bai.

(Migel Atxega)

Etxera semea ezkontzen danean, kontratua egiten da. Dana kalkulatu. Inbentario bat egin. Lautik bat maiorazgoentzat. Lautik iru, senide guztien artean zatitu, mayorazgoa tartean dutela. Kontratu orrek garrantzi osoa du. Gurasoen eta etxerako dan artean egiten da kontratu ori.

Zarrak ere señalamentu bat izaten du.

118/2. — Ezkonberriak guraso zarrekin bizi dira. Mayorazgoak, etxearen martxa guztia bere gain artzen du; eskubideak eta betebearrak, elizakin, erriakin eta auzoakin.

118/3. — Seme ordezkioak, beste seniden eskubide berdiñak dituzte.

119/1. — Testamenturik edo kontraturik gabe il ezkeru gurasoak, senide guztien artean erdibitzen dira ondasun guztiak; alkarrekin konpondu ezin ezkeru.

120/1. — Kontratuan agertzen dira gauzak ondo egiñak. Senar emazteak ezkontzearakoan alkar eredatzen dira. Emaztiak berari egokitzen zaion zatia ekartzen du.

Len, toki geienetan, oiaren oialak eta senarraren barrango jantziak emazteak ekartzen zuan eta geienetan berak eskuz egiñak. Adibidez, oraindik etxe askotan daukate amonak ekarritako arrea. Matxiñe'n adibidez; amabi alkandora luzeak senararentzat, amabi maindire ta oi azalak.

120/2. — Osaba iltzerakoan... Etxean bizi ba da, etxekoak aurrenekoak izaten dira.

121/1. — Len ia etxe danetan, Miserikordia'ko semeak izaten zituzten.

(Migel Atxega)

Diputazioak ematen zitualako artzen ziran susidioak. Amaren osasunerako ohea izaten zalako, bularra emanta.

(Felix Malkorra)

Diru pixko bat artzegatik, ekartzen ziran Miserikordia'tik; baita baserrian lanerako eskuak izate arren ere.

Zazpi urteak arte Diputazioak ordaintzen zituan. Gero berea bezela artzen zan.

121/2. — (Migel Atxega)

Aita ponteak, bere besoetakoai, borondatekoa ematen zion, egokitzen zitzaiona. Nik libreta bana atera nien Aurrezkikutxan irureun pezetakoa.

## SENAR-EMAZTEAK

122/1. — (Migel Atxega)

Etxeko buru bezela, errian agertzen dana, senarra da.

Senar emaztearen artean, agintaritza berez senarrak dauka.

Baiñan egitazko agintaritza askotan bertan jaiotakoak dauka.

Batzuetan, bertakoa, alaba ba da, arek senarrak baiño geiago agintzen du.

Bion artean eskubide berdiñak dituzte.

Etxeko martxa eramatea, emaztearen lana da; garbitasuna, otorduak, baratza, lan soillak.

Gizonarena berriz, baserriko lantegia.

123/1. — (Migel Atxega)

Emakumea lotsagabea ba da, senarra bere mende dauka. Esatera zarrak ala dio: «Emakumeak gobernatzen duan etxea eta auntzak gobernatzen duan baratza, berdin».

Eztabaidak sortzen dira, senarra beste emakumetara dijoanean. Erri ontan senar emaztearen artean zuka egiten dute.

124/1. — Senarrak periko gauzak bere gain artzen ditu; abere, zuaitz, mendi ta lur kontuak.

Emaztearenak berriz, etxebizitza, baratza ta aur txikien eziketia. Merkatua bere gain gelditzen da.

Senarraren lantresnak: traktorea, idiak, aizkora, sega, indartresnak ta makilla dira.

Emaztearen lanerako ezaugarria, maitala da.

- 125/1. — Lan askotan, emakumeak senarra laguntzen du, baiñan lan zailak senarrarenak dira.  
Erriko festetan, bizpairu aldiz, senaremazteak alkarrekin erriko enparantzan agertzen dira.  
Azkeneko bost urte auetan, bizpairu aldiz, txuleta jatea egite-rakoan, biyek datoz.  
Etxe geienetan, bata bestearen ondoan bazkaltzen dute.
- 126/1. — Etxeko gauzak etxearenak izaten dira. Dauden nagusiak zaindu bear dituzte.  
Gaiñera ezkontza alde bakoitzean, emazteak, bereak ekartzen ditu; bere dotea edo egokitzen zaiona.  
*(Felix Malkorra)*  
Lengo arreo, auxe izaten zan: bi oida osorik, gizonentzat amabi alkandora, eunezkoak eskuz egina; gaiñera sei mandire ta sei manta.  
Ta aspaldiko arreo: atxurre, laia, ardatza ta beste tresna batzuk. Idigurdikin ekartzen zuten emaztearen arreo. Pasatzen zan etxe guztietan, ardo ta galletak ematen zizkioten. Gurdi soñu jotzen zutela, ganadu zintzarrikin zetozen.
- 126/2. — Emaztea etxean sartzerakoan, etxekoa da ta senarrak ainbat esku bide ditu.  
Senaremazteak egindakoekin, biyek agintzen dute; beste gauze-kin baiño geiago, jakina.  
Legasa'ko Migel'ek, bere emaztea ii zitzaionean, ekarritako do-  
tetik, seme alaba banari milla pezeta Aurrezki kutxan sartu zi-  
tzaizkien.
- 127/1. — Guraso zarrak berriekin ez dute geiago agintzen, baiñan oarrak beti egiten dituzte, itxuraz gauzak ordo ez dijoaztela edo bear dan garaian.  
Aita zarrari, Aita Jaune deitzen zaio ta Ama zarrari Amandrea.  
Begiramen aundiakin begiratzen zaie, lanean eta maien.
- 128/1. — Senar emazte gazteak, beren etxetara (jaiotetxetara) noiz bein-  
ka agertzen dira; illetak, bataioa, errikofestak dirala.  
Beren jaiotetxetan oso ondo artuak izaten dira.
- 129/1. — Aberen tratua senarraren lana izaten da; txerri tratua berriz,  
emakumearena.  
Erriko goraberetan senarra agertzen da; Auzolan bezela.

- Larunbata ta igande gabetan ostatura beste erriko gizonetara, senarra biltzen da; musean jokatzera edo alkarizketa egitera jotzen da.  
Korpus eguneko prosesiora, senarra agertuko da.  
Perira astelenetan, Tolosa'ra, senarra dijoa.  
Larunbatean, azokara berriz, etxeko andrea.
- 130/1. — Aur txikien eziketa, aman eginkizuna da.  
Mutilla aitak artzen du berekin; alaba berriz, amak.  
Seme alabekin zerbait gertatzen dala, gogor egiteko amak esa-  
ten dio aitari.  
*(Migel Atxega)*  
Aurrak, txikiak dirala, bestekin lo egiten dute. Lo egiten duna-  
kin ura maitena beretzat.
- 130/2. — Aurrak beren libreta Aurrezki Kutxan izaten dute, baita etxean  
eltxetxoan ere.  
Igandeko saria, auzcan egindako aginduen saria, eltxetxoan sar-  
tzen dituzte ta gurasoak andik Aurrezki Kutxara eramaten.
- 131/1. — *(Migel Atxega)*  
Aurrik izaten ez duten emakumei, «matxorrak» deitzen zaie.  
Esaera zarrak ala dio: «Ijitotan ez da matxorrik izaten».  
*(Jenara Gastesi)*  
Atsoa, ezkondu ta aurrik ez duan emakumeari esaten zaio.  
Umeik ez duan emakumeari, «mimaue» deitzen zaio.  
*(Eusebi Mintegi)*  
Emakumearen agortea, medikuarengana joan ezker, asko kon-  
pontzen zala, esaten zan emen. Besteak, belarrak artzera,  
Tolosa'ko enplastera batengana joaten ziran. Ura edanta,  
odola aldatzen zitzairen eta bere erregletan ondo jartzen  
zitula. Gaur berriz, Iruña'ko enplastero batengana joaten  
dira.
- 132/1. — Emaztearen aurren eziketa, garrantzi aundikoa dala, ezin gene-  
zake ukatu. Gutxi gora bera, nolako ama alako aurrak. Etxean  
erakusten dan errespetuak edo erligioaren begiramenak asko  
esan nai du, gaur oraindik.

*(Eusebi Mintegi)*

Gure garaian, aman lana auxe izan da: alegin guztia egin erri-  
ligioa erakusten, otoitzak ondo egiten, Kongregaziora joa-  
ten, eta abar.


*(Jenara Gastesi)*

Errilijoari begiratu, gauza asko egiten zaizkio umeari. Guk  
ezagutu genuen bezela, egin arazi degu; goizeko otoitzak,  
maia bedeinkatzea, Errosarioa. Gure etxean, ikasi dezaten,  
Errosarioa, bateri misterio bat, besteari bestea, errezarazten  
diegu.

Elizako oiturak aman aldetik izaten dira.


*(Paula Gibelalde)*

Ametsen aurka gure amonak erakusten zigun otoitza: «Aman-  
dre Santa Ines, bart egin det amets. Ez dakit onez ala gai-  
tzez. Berriz ez egiteko, Jesusen amorez».




2/2. — Orexa erriko enparantza, erreboteko frontoiarekin.


4/3. — OREXA'KO KOBA AUNDIA



Sarrera.



Barrena.




16/1. — Matxiñe baserria.



16/1. — Txuñe baserria.



16/2. — Ormaetxegarai'ko  
karrea.



20/1. — Ormaetxegarai'ko  
kontragoiak.




20/1. — Malkorra'ko kontragoiak.






24/1. — Orexa'ko labezarrak.




24/1. — Iriarte'ko labea.




24/1. — Malokorra'ko labea.




24/1. — Malokorra'ko labeataka.




26/4. — Malkorra'ko kutxa.




26/4. — Txuñe Berri'ko kutxa.




26/4. — Legasa'ko kutxa.





26/4. — Legasa'ko kutxa.




26/4. — Legasa'ko kutxa.




26/4. — Larte'ko kutxa.





26/4. — Larte'ko kutxak.





26/4. — Iriarte'ko kutxa.





26/4. — Matxiñe'ko kutxa.




26/4. — Mikelen'go kutxak.



26/4. — Irabarren'go kutxak.



26/4. — Irabarren'go kutxak.




26/4. — Larte'ko seaskak.

26/4. — Txuñeberri'ko  
alka.

35/3. — San Juanetako lore xortak, Orexa'n.



71/1. — Pitzerrako gazta egiten Irabarrenen.



125/1. — Erriko senar-emazten txuleta jatea Alziturrieta baserrian. Orexa, 1973.



126/1. — Matxiñe'ko amona Ildefonsak, senarrarentzat, orain dala 60 urte, ekarritako alkandora, bere arrekoa.